

TOKIKOM

# karkara

**Orioko eta Aiako aldizkaria**  
2010eko urriaren 29a  
286. zenbakia. 22.urtea



**“Gipuzkoa bera  
hiri handi bat da”**

Aian bizi da Eneko Goia, Foru Aldundiko  
Azpiegituretako diputatua eta  
EAJren Donostiako alkategaia

**05**

**Orioko kontuak**  
Goiko kaleko aparkalekuak

**12**

**Kirola**  
Amilibia Malaysian

**14**

**Aiako berri**  
Juan Luis Zumeta

**25**

**Herritarrak**  
M.P. Oliden eta F. Masa

**TAILER MEKANIKOA**  
**MANTEROLA S/L**  
 TXORROKAK - BAZULAK





Santiago auzoa - 18 postakutua  
 Tel. 943 830 743  
 Fax. 943 134 634  
 E-mail: tmmanterola@euskalnet.net  
 20 810 ORIO - GIPUZKOA

Estera ko balbula  
 AENOR kalitate ziurtagiriduna

FISIOTERAPIA Garbete Arindag eta Nafola Uherretan  
 NUTRIZIONISTA (Gertale Auzoan)



**sinergia** investigacion fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95



**Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04  
 FAX: 943 13 09 38  
 orio@ikastola.net  
 www.oriokoikastola.net



*Sukalde eta bainuen erreformak*

**XANTI MUJIKA**  
**Igeltseritza**

699 46 76 21  
 943 13 10 37

**TANATORIO ZARAUTZ**



EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- \* Donostia eta probintziako ospitaleetan
- \* Aldiarako zerbitzua
- \* Belatorio gelak
- \* Koroak, eskalak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 88 44 30 / fax: 943 88 48 48  
 e-mail: hantopidiotanorgil.net



**Zaragueta Eskola** Orio

telefonoa: 943 89 40 52  
 e-mail: 012137aa@hezkuntza.net



**ZAPATA KONPONKETAK**

Lanegutietan 09:00 - 13:00 eta 15:00 - 19:00  
 Lurmutegiaren aurrean - 15000  
 Herriko inguruetan, Orio

**URANGA**

burdindegia

Opari, menaje eta erreturak

fer.uranga@euskalnet.net  
 Telefonoa: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

tel/fax: 943 89 00 69  
 Ibaia bide 4 - ZIBIKI ZARAUTZ



**URBIDE**

ITURGINTZA, BERDINTZA  
 GASA BAINU ERAKUSKETA  
 Herriko inguruetan, Orio

Orioko Ogia



**ORIOGI**

OPI OIKINDEGIA  
 Frontoi ondoan  
 Tfnoa: 943 83 01 89

**SOLOZABAL**  
 autoeskola



Eusko Gudari, 30-1. ezk  
 telef: 943 83 08 12



Arantzia **MIRANDA**  
 .KONPONKETAK

Gelma eta teilu, eskalera...  
 behar diren lanak  
 egiteko dirikidugu

Ordineta bidea, 1 - 669 42 32 70 - ZARAUTZ

**LUXARBE**  
 igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

**PERTSIANAK**



Aluminio, PVC  
 Venezianak  
 Motorrak...

Tel: 943 13 29 01 Muzikorra 600 70 52 27

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA

**KARKARA**

943 83 15 27

He apaindegia

**MARIJO**



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo  
 Tel. 943 13 47 29  
 ORIO

## Tabakoaren legearekin erreta

**1**

Ducados, Camel, Chester ta *Luki Estrike*, gure kontura zenbat irabazi dite, biriketako gaitzaz gu berriz *a pike*, guregan pixkat behintzat pentsatu balite.

**2**

Gai hontan gobernua ku otu du sartzea, tabernetan prohibituz orain erretzea, baina zauri gainean pomada jartzea soluzio kaxkarra da, adiskidea.

**3**

Neurria hor dago ta ezin egin uko, alde txar eta onak dira agertuko, gure birikek behintzat dute eskertuko eta Marianok ez du metxeroik salduko.

**4**

Ez al zarete bertso hauekin nazkatu? Horregatik guztioi aizue, barkatu. Nere esperientzia nahi nuke aipatu, ez naiz bertso eskolan inoiz apuntatu.

286

## karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**  
20810 Orio  
943 83 15 27  
karkara@karkara.com  
www.karkara.com

### Editorea

Karkara taldea  
kultur elkarte

### Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

### Erredakzio burua

Lore Berasaluze

### Erredakzio taldea

Irati Agirreazaldegia,  
Pat Cowie,  
Miren Etxeberria, Eli Lasa  
eta Jabier Zabaleta

### Publizitatea

Pat Cowie

### Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze

### Testuen zuzenketa

Miren Etxeberria eta  
Jabier Zabaleta

### Ale honetako laguntzaileak

Ane Arriola, Andoni  
Atorrasagasti, Arkupe  
elkartea, Unai Manterola,  
Jesus Rodriguez eta  
Nikolas Zendoia

### Laguntzaileak

Jon Agirresarobe

### Diseinua

Karkara taldea

### Banatzaileak

Oihana Genoba eta  
Ane Miralles (Orioko)

### Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berri eman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



### PUBLIZITATE PREZIOAK

#### Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

#### Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

**Publizitatea kontratatzeko,**  
**Pat Cowierekin hitz egin**  
**(695 78 07 20) edo**  
**karkara@karkara.com**  
**Prezio hauei BEZa gehituko zaie**

### LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea

## Mundu arraroa

Asier Bastarrikari ez zitzaion gustatu KARKARAKO nire azken zutabea eta *inkisidore*, *handiuste* eta *orojakile* deitu zidan aurreko zenbakiko gutunean. Ez nion gaizki hartu, hala ere, segida-segidan garbi utzi baitzuen beretzat *garrantzitsuena besteak errespetatzea dela*, *ados egon ala ez*. Bat nator, jakina, Asierrekin.

Behin erantzuten hasita, aprobetxatuko dut eztabaidaren haria pixka bat luzatzeko, gaiak, gure alabak esango lukeren bezala, *motibatu* egiten nau-eta:-)

Mundu arraro batean bizitzea egokitu zaigu. Arrazoiari eta zientziari esker, gizakiak inoizko ezagutza-mailarik handiena dauka inguruko zein urrutiko gauzez; aurrerakuntza harrigarriak egin ditugu medikuntzan, fisikan, biologian... pentsa daitekeen edozein ezagutza-alorretan, eta aurrerakuntza horiek gure bizimodua aldatu dute, orain dela hogeiki urte eskas ezinezkoa irudituko litzaiugkeen eran. Ezagutzaren urrezko aro batean bizitzeko zorzea izan dugu. Baina, hala ere, askoren begietara, ez dago ondo ikusia zientzia famatzea eta, hori gutxi balitz, gero eta presenteago daude gure bizitzan sasi-zientziak eta era guztietako esoterismo zentzugabeak.

Sinesteia libre da eta, Asierrek dioen bezala, errespetatu egin behar da sinestuna. Baina, pertsona errespetatuta ere, zilegi ez ezik, egoki eta are beharrezkoa da sineskeria absurdoen kontra agertzea; bestela, azkenean, dena normal eta balekoa irudituko zaigu. Eta ez da. Espiritismoak, tarotak eta astrologiak ez dute inolako funtsik; ez nik diodalako —nire esanak ezer gutxi balio du—, bai zik-eta komunitate zientifikoak aspaldi frogatu zuelako inolako ebidentziarik ez dagoela horien atzean, eta bai kontu ugari. ■ **Jabier Zabaleta**

## Sineskeria berriak, non dago arazoa?

Jabier Zabaletak, urriaren 1eko KARKARAKO *Nire honetan* atalean argitaratutakoari erantzunez, esan nahi nioke *bizi eta bizitzen utzi ez dela* lelorik txarrena ontzat ematen duen pertsonarentzat bere azken esaldiak —*sineskeriaren loraldiari kontra egin behar zaiola uste dut*— zeharo harritu nauela, itxura batean behintzat, iritzi erabat kontrajarriak direlakoan bainago.

Gogoeta moduan, inoren pentsakera-sineskeria zalantzan jarri gabe, galdetu beharko dugu zergatik ote den sineskeria horien loraldia. Kasualitatea al da

## Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: [karkara@karkara.com](mailto:karkara@karkara.com) edo gure lokalera eskura ekarri (kultur etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

jendeak duen erantzunen beharra? Nire uste apalean, ez; argi baitut kasualitatea ez dela existitzen.

Euskal Herria beti izan da horrelako *sineskerien* aldeko, kulturaren erabat ezarriak dauden ohitura asko ditugu *zientifikoki* esplikatu ezin direnak; gure artean kontu hauek ez dira batere berriak.

Argi dago zientzia oso baliagarria dela, baina egia da, baita ere, gauza asko daudela zientziak argitu ezin dituenak; edo zientziak berak ere akatsak izan ditzakeela, gero denborarekin zuzenduko direnak; beraz, zientzia bera ere ez da infaliblea.

Ez al da garrantzitsuena jendea iri lagingarri zaizkion tresnak aurkitzea?

Sineskeria guztiak dira txarrak muturretara eramanez gero eta horren adibide argiak ditugu historiako zenbait gertakizun latz, baina norberari on egiten dion zerbaitek —besteei kalterik egin gabe— zerbait positiboa delakoan nago eta hori da gai honen funtsa.

Utz diezaiozun bakoitzari bere iritzia esperientzia izaten eta behin esperientzia hori edukitakoan, bakoitzak erabaki dezala positiboa ala negatiboa zaion.

■ **Amaitzeko**

## Gure atxikimendurik ez

Orain dela hilabete, KARKARA aldizkariaren 284. zenbakian, eta *Gaia emanda* atalean, galdera hauxe irakurri ahal izan genuen: *Beharrezkoa al da Udalaren eta Ikastolaren arteko hitzarmena?*

Beranduago jakin dugunez, galdera alkateari zuzendu zitzaion eta horrek Aralarko ordezkariari pasa omen zion, hezkuntza batzorde burua hura dela eta. Guk, Ezker Abertzaleko zinegotziok, ez

genuen horren berririk izan idatzia plazaratu zen arte. Horretan gezurra esan zenuten, zeren eta txosten hori EAJren eta Aralarren artean adostutako txostena izan da eta ez, inolaz ere, Udalarena.

Idatzi horretan agertzen diren hainbat arrazoi eta argudio, justifikazina justifikatzeko erabiltzen dituzue: Jon Redondo alkateak, eta berak bakarrik, hautsi duela Udalaren eta Orioko Herri Ikastolaren arteko hitzarmena; alkateak bere kabuz eten zuen hitzarmen hori, 2006ko uztailean 26an udalbatzar batean onartutakoa zena eta, besteak beste, EAJren 6 bozkarekin.

Erabakiari so eginez, alkatea 2008. urtean saiatu zen hitzarmena eteten, baina forma-akatsak tarteko, ez zuen lortzerik izan: 2009an indargabetu zuen.

Zalantzarik gabe, istorio hau zer esana ematen ari da herrian, eta emango du aurrerantzean ere. Baina, argudioak argudio, Ezker Abertzaleko zinegotziok ez dugu onartu, ezta onartuko ere, KARKARAKO idatzia Orioko Udalak sinatuta izatea, gezur biribila delako.

Zilegi da zuen iritzia izatea, zilegia kaleratzea, baina ez da zilegi besteren izenak ere zuek herriari egin nahi diozuen eta egin diozuen iruzur honetan ere nahastea, aldi berean, herritarren artean ere nahasmena sortzeko asmoarekin.

Bukatzeke, esan behar dizueguna zera da: idatzian jartzen duzuenaren aurka doazela zuen ekintzak, ze horrelako ekimenek ez dute batere laguntzen giro lasaia sustatzen, are eta gutxiago herri honetan hezkuntzan dauden bi aukerei bultzadarik ematen. ■ **Ezker Abertzaleko zinegotziak**

## Zorionak Anjel Lertxundi

Anduren *Eskarmentuaren paperak* liburuak eskuratu berri duen Espainiako Saiakera Sariak idazleari aitortzen dion merezimenduak eta maila literarioak poztu egiten gaitu. Orain saritu dutena liburu bat da, Anjelen 40 urteko eskarmentu aberatsak eman duen azkena, behar bada mugarri bat Anduren ibilbidean. Baina, gure ikuspegitik, Anjel Lertxundiren obra osoa da oparoa, ederra eta saritzeko modukoa. Euskara Lertxundiren ama hizkuntza ez ezik, haren zaletasuna, lan tresna eta hausnarketa gai nagusietako bat ere bada. Eta euskara eta euskal literatura, Anduren obraren bidez, inoizko mailarik gorenetakora iritsi da.

Horregatik eta bere liburu eta idatzietan beti erakutsi duen gure hizkuntzarekiko eta herriarekiko konpromisoagatik, zorionak eta eskerrak eman nahi

dizkiogu Anduri, Orioren eta oriotarren izenean. Bide batez, aukera baliatu nahi dugu adierazteko harro sentitzen garela Anjel Lertxundi *Andu* Orioko Goiko Kallean jaio izanaz, eta Anjelen oroimen eta oroitzapenetan, eta *Eskarmentuaren pa-perak* liburuko nolabaiteko autobiografian, Oriok eta oriotarrok daukagun tokiaz.

Animatu egin nahi dugu goizero-goizero segitu dezan orri zuriari ekiten; jakin badakigulako haren lan nekagaitzaren fruitu izango diren hitz eta idatzieta-tik, literatur lan ederrez gain, gogoeta sakonak, mamitsuak eta interesgarriak sortuko direla, herritarrontzat eragin-garri eta aberasgarri izango direnak.

■ Orioko Udala

## Torturarik ez

Tortura errealitate gordina da Euskal Herrian. Azken 50 urteotan, kasik 10.000 euskal herritarrek torturak edo tratu txarrak salatu ditu polizien esku egon ondoren. Badira torturapean hildako herritarrak ere.

Torturarekin amaitzea guztion ardurara da. Espainiako gobernuak muzin egin die inkomunikazioaren praktika arbuia-tzen duten Euskal Herriko eta nazioar-teko hainbat erakunderen eskaerei. Inkomunikazioa erabiltzen segitzen du, tortura eta tratu txarrei bide emanez. Torturaren eragina ez da komisarian bukatzen. Torturapean egindako deklarazioak frogagisa erabiltzen dira auzite-gian; herritarrak zigortzeko baliatzen. Estrasburgok Espainiako estatua zigortu du tortura salaketa bat ikertu ez izanagatik.

Giza eskubide guztien bermeaz hitz egiten ari garen honetan, torturarekin amaitzeak garrantzi berezia hartzen du gure begietara.

Tortura ezkutuan mantentzeko aha-legina aspaldikoa da. Tortura salatu izana zigorraren jomugan dago. Torturatuak izan diren herritarrak eta horien abokatuak auzibidean jarri dituzte berek jasandakoa salatu izanagatik.

Torturak ez dira salbuespenak; torturarekin behin betiko amaitzea eskatzen dugu eta erakunde publikoei konpromiso argiak exijitzen dizkiegu horretarako, eman behar den lehenengo pausua inkomunikazioarekin behingoz bukatzea delarik.

Hori dela eta, dei egin nahi ditugu herritarrak urriaren 30ean Donostiako manifestazioan parte hartzera. Goiburua *Torturarik ez!* izango da eta 17:30ean aterako da Antiguako tuneletik. ■ Orioko Anmistiaren Aldeko Taldea



## Kaka zaharra

Txakurrek kaka egiteko lekua dirudi Orioko kultur etxe atzeko parkeko hondarrezko eremuak. Txukun-txukun, karramarroz, txirlaz eta abarrez apaindutako arroka eta hondarrea txakur kaka besterik ez da ikusten. Txakur jabeek belardiak errespetatzen ez dituztela ikusita, bestelako irtenbideak jarri behar lirateke: haurrei bai, baina txakurrei pasatzen uzten ez dien hesia jar liteke, esaterako. Edo txakurrek kaka egiteko toki egokiak jar litezake Udalak.

## Orioko EAJren zehaztapenak

Gure alkatea etengabe erasotzen ari dira batzuk, asmo txarrez, haren izen onari kalte egiteko helburuarekin eta, hori dela eta, Orioko EAJk honako zehaztapenak egin nahi ditu:

Hezkuntza alorreko erabakiak gehiengoz hartu ditugu EAJren batzarretan eta, gurea alderdi demokratiko bat denez, bai alkateak eta bai gure zinegotziek onartu eta defendatu egin behar dituzte alderdiak hartutako erabaki horiek. Horixe da udaletxean egiten ari direna. Garbi dago, beraz, Orioko EAJren batzarra dela hezkuntza alorrean erabakiak hartzen dituen, eta ez Udalean EAJk dituen ordezkariak.

EAJk nabarmendu nahi du beti bul-tzatu duela euskarazko hezkuntza Orion eta gure lanari esker, besteak beste, Orioko Udala erreferentea izan dela Gipuzkoan herriko ikastetxei eman dien laguntzagatik, nahiz eta hezkuntza ez den Udalaren eskuduntza.

Azpimarratu nahi dugu, baita ere, EAJren botoei esker, eraikin berri bat daukagula Orion 12 eta 16 urte arteko ikasleentzat (Muntoko plan partziala onartu genuelako eta eraikinaren finantzazioa barne-hartzen zuten aurrekontuak onartu genituelako). Gaur egun, erakina errealitate bat da eta, gure boto-

rik gabe, ezzen posible izango.

Beste adibide bat Orioko lau ikastetxeentzat (Maria Maestra haurreskola, San Nikolas haurtzaindegia, Zaragueta eskola eta Orioko Herri Ikastola) onartu berri den diru-laguntzen deialdia da. EAJk uste du lau ikastetxeak nahitaezkoak direla Orion eta, beraz, laguntza emango diegu, orain arte bezala, egoera ekonomikoak ahalbidetzen duen neurrian eta legea zorrotz beteta. ■ Orioko EAJ. Prentsatik jasoa eta KARKARAK itzulia

## Kutsadura etxeko atarian

Ez da gai berria, baina ezin gara isilik geratu Andatza auzoan dagoenaren aurrean: Estampaciones Guipuzcoa fabrikak sortzen duen zarata, Arrillagak sortzen duen hautsa eta biek botatzen duten ur kutsatua dira nagusi. Hasteko, garbi utzi nahi dugu ez gaudela fabriken kontra, produktioa eta lanpostuak beharrezkoak baitira. Baina biak etxe ondo-ondoan ditugunez eta gaur egun lantegiek sortzen dituzten zarata eta hondakinen kudeaketa araututa dagoenez, bi enpresen ardura falta salatu nahi dugu eta arauak lehenbailehen betearaztea eskatu.


Estampaciones Guipuzcoa lantegiak onartezinako zarata sortzen du egunero. Gure ustez, konponbide erraza du, gainera, ikusi besterik ez dago zarata nondik ateratzen den.

Arrillagan, berriz, hauts oso arrisku-tsuak sortzen dira, langileen eta auzokideen kalterako, baina ez da ezer egiten hori saihesteko. Denok arnasten dugun hauts kaltegarria benetan kezkatzeko modukoa da, eta eskatu nahi dugu hori konpontzeko edo fabrika ixteko.

Horrez gain, bi fabriken ur kutsatuak— azido asko erabiltzen baitute— erre kara doaz. Hala ere, guk dakigunez, orain sartzen ari diren tuboek ez dituzte ur zikinak eramango. Zergatik ez dute fosa bat egiten eta behar den maiztasunarekin hustu eta tratamendua emango zaien lekura bidaltzen? Kostu handirik ez luke izango.

Ez dago eskubiderik. Papertegietatik jaisten zen apar zikina ez dugu Oriabaian ikusten orain, eta arrainak badaude erriean. Eta Aian zer? Jarraitu behar al dugu arauak betetzen ez dituzten fabriken hondakinekin bizitzen... edo hiltzen? Egin dezala herriak ahalegina behar dena lehenbailehen exijitzeko, gu hobeto bizitzeko eta denon onerako.

■ Andatza auzoko lagun batzuk



Garajeen goiko aldean aisialdi gunea egingo dute. LURRA

# 2012 erdirako bukatuta egongo dira Goiko Kaleko aparkalekuak

Guztira 77 garaje itxi izango dira Kakioneko zelaiaren eta etxebizitza tasatuen azpian. Zelaiaren goiko aldean aisialdi gunea egingo dute kirol kantxa, frontoi, berdegune eta umeentzako jolas parkearekin

Urriaren 5ean egindako ezohiko udalbatzarrean Kale Nagusiko eta Aizperroko kontzertazio hitzarmenak onartu zituen Udalbatzak aho batez.

Goiko Klean, Kakioneko zelaiaren, lur azpiko garajeak eraikitze baimena ematea du helburu lehen hitzarmenak.

Eraikuntza proiektuaren arabera, garajeek 2.349,33 metro koadroko azaleraetik 1.657,26 metro koadro hartuko dituzte eta hiru mailatan banatuta egongo dira: sotoan 26 garaje; lehen erdisotoan beste 26; eta bigarren erdisotoan 10; 61 garaje itxi guztira, hain zuzen ere.

Baina garajeak 77 izango dira orotara, lur azpiko garajeek lotura zuzena edukiko baitute Kale Nagusiko 29 eta 29bis zenbakietan egingo diren 27 etxebizitza tasatuen sotoko garajeekin.

Beraz, 27 garaje gorde egingo dituzte etxebizitzak eraiki arte eta gainontzeko 50 garajeetatik bakararra dago oraindik ere saltzeko.

## Urbanizazio lan konplikatuak

Lurra enpresa sustatzaillea da proiektuaren arduradun. Garajeak eraikitze lanak aste honetan hasi dituzte eta, aurreikuspenen arabera, 2012 urteko erdi alderako jabeek garajeetako giltzak emango dizkietela jakinarazi dute. Gaur egun gunea horretan bi eraikin txiki daude; garajerako erabiltzen den txabola bat eta bestea baratze lan tresnak gordezko erabiltzen dutena; garajeak egiteko, biak bota egingo dituzte.

Udaletzeko bulego teknikitik adierazi digutenez, jendea aspalditik dago garaje

horiek hartzeko zain eta urduritasuna agerikoa da. Gaineratu dute urbanizazio lan konplikatuak dela Goiko Kaleko garajeena; izan ere, asko kostatzen zitzaizkien lurrak erostea eta gero akordio bat egin behar izan zuten Udalarekin. Izan ere, Kale Nagusian egingo dituzten etxebizitzak tasatuak izango dira eta, horretarako, adostasuna lortu beharra zegoen. Horrek eragin du, beraz, atzerapena.

Garajeak lur azpikoak dira, eta horien gaineko lur guztia zoru publikoa izango da; aisialdi gunea bat egingo dute han. Kirol kantxa, frontoi txikia, umeen jolasak eta berdeguneak izango ditu gunea horrek. Gainera, igogailua ere egongo da Iturbide kaletik, garaje jabeek ez ezik, herritar guztiek ere erabili ahal izango dutena aisialdi eremura igotzeko. Herritarrek parkeko beheko mailara iritsiko dira igogailuan eta, handik goikora joateko, gurpildun aulkian doazenentzako aldapak egingo dituzte. Horrela, irisgarritasuna bermatzea da Udalaren asmoa, bulego teknikoak azaldu digunez.

## Aizperroko industriagunea

Bestalde, Aizperroko lurretan industriagunea egiteko, lur-jabeen eta Udalaren arteko kontzertazio hitzarmenari behin betiko onarpena eman zion udalbatzarra.

Nasipa enpresa arduratuko da autopistako ordainlekuaren aldamenen eraikuntza den industria gunearen proiektuaz. Industria eremuak 29.000 metro koadro edukiko ditu eta lurrak 9 partzelatan banatuko dituzte. Hala ere, oraindik eraikuntza proiektua egiteko dagoenez, zehaztu gabe dago zati bakoitzean zenbat industria-nabe egingo dituzten. Baina Orioko Udaleko bulego tekniko langileek aurreratu digute nabeek bi solairu izango dituztela: behekoa eta tarte-koa.

# Bost eguneko sanmartinak izango dituzte Ortzaika auzoko bizilagunek

Iritsi da, urte osoan, ase ezinik irentsi eta irentsi jardun den txerria hil eta mahaiaren inguruan bilduta jateko unea; hemen dira, heldu dira, Ortzaika auzoko San Martinen ohorez egiten diren festak.



Kontzertuen ordeztan, bertso-afariak izango dira aurten gauetz. KARKARA

Berriz ere, jai giroan murgilduko da Ortzaika auzoa azaroaren 11tik aurrera eta berriro eta txukundutako aparkalekua eta inguruak estreinatuko dituzte aurretan, gainera.

## Egitaraua

Bost eguneko programa antolatu dute, jai eta aja ibiltzeko: azaroaren 11n hasi eta 14a arte jarraian izango dira jai egunak eta hilaren 19arekin bukatuko dira.

San Martin egunean, mezarekin 10:00etan-egingo zaie ongietorria festei aurten. Hamaiketakoarekin gorputza epeldu ondoren, toka eta sagar biltze txapelketa egingo dira, hainbat bertsoari lagunduta. Iluntzean, berriz, mutil-ardoko afaria izango da.

Ostiralean, berriz, mus txapelketa izango da. 22:00etan hasiko da lehia eta, antolatzaileen arabera, ikaragarriko sariak dituzte irabazleentzat. 20 euro ordaindu beharko du parte hartu nahi duen bikote bakoitzak.

Goiz hasiko dute larunbata, oilasko biltzera goizeko seieta abiatuko baitira. Gauean, berriz, 25 euroren truke, bertso afaria izango da Anjel Mari Peñagarikano eta Jesus Mari Irazurekin. Ander Beldarrain eta Eneritz Aulesti trikitilari gazteak arituko dira soinu eta panderoa asintzen.

Urteroko ohiturari segiz, erakustaldia eskainiko du Heldu! taldeak azaroaren 14an, 12:00etan hasita. Gosea etortzean, bailarako bazkaria egingo dute, Goierri-tarrak trikitilarien doinuak.

Azaroaren 19an, 21:00etatik aurrera, jango dituzte hilaren 12an bildutako oilaskoak.

## LABUR

### Lanak Kirol pista

Muntoko eremuko kirol pista egiteko lanak abian dira dagoeneko -urriaren 19an hasi ziren-. Construcciones Otegi Gaztañaga S. L. arduratuko da tenis pista bat, padeleko bi pista, hainbat kirolerako gunea eta eguzkia hartzeko egokitutako lekua egiteaz. Kirol guneek belar artifiziala izango dute. Dena uste bezala joanez gero, hiruzpalau hilabete barru bukatu behar lituzkete lanak.

### Literatura Saria Anjel Lertxundirentzat

Espainiako Kultura Ministerioak ematen duen Saiakera Saria jasoko du Anjel Lertxundi idazle oriotarrak Alberdania argitaletxearekin kaleratutako *Eskarmentuaren paperak* lanagatik. Literaturaz egin du gogoeta liburuan; baina, betiere, bere bi-zipenetan oinarrituta. Izan ere, literatura-aren inguruko hausnarketak ez ezik, bizitzaren eta hizkuntzaren ingurukoak ere jaso ditu saiakera lan honetan. Ezustean, baina, era berean, pozik agertu da Lertxundi, sari hori ibilbide oso baten aitortza gisa hartu duelako.

### Euskarazko prentsa Aldaketak Berrian eta Hitzan

Bi urtez hausnarketan aritu ondoren, epe laburrean gauzatuko diren hainbat aldaketa dakartzate Berria eta Hitza egunkariak: Berriaren paperezko edizioaren barruan izango da Hitza egunkaria, astelehenean ostiralera. Hitzaren harpidedun izan nahi duenak horretarako aukera ere izango du aurrerantzean. Bestalde, Gipuzkoako albisteak jasoko dituen Gipuzkoako Hitza kaleratuko da ostiralero. Bi egunkarien atari digitalak ere berriro dituzte eta Berrieta.info ataria sortuko dute, gainera.

# Eusko Gudari kalea berpiztu nahi dute Arkupek eta Udalak

Merkataritza jarduerari dagokionez, bi zona bereizitan banatuta agertzen da kalea, eta azterketa bat egiteko laguntza eskatu diote Jaurlaritzari, kalea itxuraberritzeko eta herriko irteera-sarrera hobetzeko

Herriko denda asko eta asko biltzen dituen Eusko Gudari kalea berpiztu eta herriko irteera-sarrera hobetu nahi ditu Arkupe merkatarien elkarteak. Izan ere, aurreko legealdian Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle Pilar Zorrillak eta Victoria Elizagarate Gutierrezek egindako ikerketaren arabera, kaleak bateratzeko beharra du mertakaritza jarduerari begiratuta, bi zatitan –hasieratik Kuxta parera eta handik bukaera arte– banatuta dagoelako. Horrekin batera herriko irteera-sarreraren arazoa ere aztertu nahi dute.

Arazo horien irtenbidea jasoko lukeen azterketa egin nahi dute aurrena eta, horretarako, 52.800 euroko diru-laguntza eskatu diote Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailari. Irailean egin zuten eskera eta haren ebazpena noiz jasoko zain daude orain. Orioko Udaleko turismo teknikari Idoia San Sebastianen hitzetan, aurtengo aurrekontuetan ez da proiektu horretarako partidarik aurreikusi eta datorren urtean egingo litzateke azterketa, laguntza jasotzen bada.

Idea-lehiaketa antolatuko dute gero, ikerketako emaitzak ardatz hartuta. Behin proposamenak jasota, erakusleihenotan zintzilikatuko dituzte, herritarrek ikus eta azter ditzaten, eta egokiena zein den erabaki dezaten.

## Udako balorazioa

Uda garaian antolatutako ekintzekin gustura agertu da Merkataritza Batzordea, arrakastatsuak izan zirelako stock azoka, musika emanaldiak eta txu-txu trenak. Iazko salmentak gainditu zituen abuztuaren azken asteburuan egindako stock azokak eta jende gehiago ibili zen dendetan eta antolatutako ekimenetan.

Musika emanaldiei dagokienez, taldek eskainitako ikuskizunarekin antolatzailerak gustura badaude ere, kontzertuak Zakilaeneko aldapan, Pietatearen azpian, egitearekin ez daude hain gustura, entzuten lasai egoteko toki egokia ez delako. Datorren urtetik aurrera, plazara aldatuko dituzte emanaldiak.

17.125 joan-etorri egin ditu aurtengo udan txu-txu trenak; iaz baino % 8 txartel gehiago saldu dira, 10 egun gehiago izanda.



Eusko Gudari kalea biziberritu nahi dute Arkupe elkarteok. KARKARA



Udako kontzertuetan, Elvis Presleyren bertsioak jo zituen taldea. ORIOKO MERKATARITZA BATZORDEA



# Salbuespenak salbuespen, ordenantza fiskalak izoztu egin dira

Urriaren 26ko udalbatzarrean eztabaidak izan ziren zabor zergen igoeraren inguruan, baina batik bat Euskadiko Memoriaren Egunerako Eudelek aurkeztu zuen idatziari zuzenketak egiterakoan

Ohiko udalbatzarra egin zuten urriaren 26an udaletxean eta zortzi gai izan zituzten mahai gainean.

Hasteko, bi kreditu aldaketan berri eman zuten; 10.000 eurokoa eta 13.231 eurokoa. Ondoren, Udalaren 2010eko aurrekontuan egin beharreko 287.350 euroko kreditu aldaketa izan zen onartu beharrekoa eta gehiengo absolutuz onartu zena. Ezker Abertzaleko udal taldeak, aurkako botoa ematerakoan, argudiatu zuen bide (kale?) garbiketaren gastuak eta Fondo Foralera bueltatu beharrekoa, gehiegizkoak direla; ordainetan, beste gastu batzuk murriztu egin direla, batez ere ongizatekoa, azkena murriztu behar litzatekeena.

Ordenantza fiskalen aldaketak zeresana eman zuen, bozketan EAJ, Aralar eta PSEren aldeko botoekin onartu bazen ere. Orokorrean izoztuta geldituko dira datorren urterako ordenantza fiskalak, baina bada salbuespenik: plusbaliak %8tik %9rako igoera izango du; ibilgailuetan %2 igoko dira zergak, baina 14tik 20 zaldira artekoetan %4koa izango da igoera. Hobariak izango dituzte ibilgailu elektriko eta hibridoek; hondartzako aparkalekuetan 10 zentimo igoko da ordainketa (orduko?); kanpinean eta kiroldegian %5eko igoera izango da eta Musika Eskolan %7koa.

Etxebizitzetako zabor zerga %13,51 igoko da; komertzioetakoa %11,2; eta banku eta ostalaritzakoa %8,68. EAk eta Ezker Abertzaleko Udaltaldeak zabor bilketaren kudeaketa ezegokia aipatu zituzten eta igoerak neurritz kanpokoak direla gehitu zuten azkenekoek.

## Araudiak eta baldintzak

Auto-taxi zerbitzuaren tarifak eta kanpi-



Etxebizitzetako zabor zergak %13,51 igoko dira datorren urtean; hilabetean euro bat. KARKARA

neko taberna eta supermerkatu zerbitzuen kontratazioaren araudia (aho batetz?) onartu zituzten alde batetik; etxez etxeko laguntza programaren adjudikazioa arautzeko baldintzak, bestalde, aldeko 7 boto eta 3 aurkakorekin. Ezker Abertzaleko udal taldeak Udalarari ahalegin handiagoa eskatu zion zerbitzua merketzeko. Alkateak bere harridura agertu zuen eta adierazi erabiltzaileen arabera aldatzen dela kreditua(?) eta horrek ez duela zerikusirik oinarriekin. Bake-epaile, berriz, Felipe Arostegi izendatu zuten berriz eta ordezkoa Santiago Zaldua izango da.

## Memoriaren Egunerako idatzia

Azkenik, Euskadiko Memoriaren Egurenaren ospakizunerako Eudelen Erakundearteko Aitorpenak eztabaida beroa piztu zuen, besteak beste, egun horretan oroitu beharrekoak zein diren adostasunik ez zegoelako. Aralarreko Iñaki Iturainek bigarren testu bat aurkeztu zuen beste biktima batzuk zerrendatuz. Azkenean, Eudelen idatzia mahai gainean utzi eta Iturainen ekarpenekin egindako testua onartu zuten EAJ, EA eta Aralarren aldeko botuekin. Idatziari gehitu zitoten estatuko indar armatuek hildakok ere aintzat hartu behar direla.



**Sagasti**  
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI  
Tf / fax: 943 13 00 77  
sagasti@leihoak@telefonica.net  
Arrantzala kalea, 85  
20810 Orreaga (Gipuzkoa)



**HARROBI ANAIAK**  
IGELTSARITZA OROKORREAN

Gremioen koordinazioa  
GAIZKA: 467 80 24 93  
EKAITZ: 635 73 10 79

Profesionalak - Azkarrak - Merkeak  
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe  
harrobianaia@hotmail.com



Ikastolatik pasatako lehendakariak, prentsaurrekoa bukatu ondoren . KARKARA

## Hitzarmenari eusteko eskatu die Ikastolak politikariei

Orioko Herri Ikastolak eta Udalak bizi duten egungo egoeraren berri emateko prentsaurrekoa eman zuten urriaren 20an Orioko Herri Ikastolatik pasatako lehendakariak

Azken hilabeteetako Orioko Herri Ikastolaren eta Orioko Udalaren arteko harreman gatazkatsuek bultzatuta, eta Jon Redondo alkateak irailaren 29an etxez etxe banatutako oharrari erantzun nahian, prentsaurrekoa eman zuten urriaren 20ko arratsaldean ikastolako lehendakari izandakoek: Eugenio Garmendiak, Jose M. Illarramendik, Koldo Olariagak, Joseba Goiburuk, Arantxa Adurizek, Pello Orbañanosek eta Eneko Dorronsorok. Ezin izan zuten agertu Antonio Camposek eta Jose Antonio Lertxundik, bat egiten badute ere han esandakoarekin.

Pello Orbañanosek, gainerako guztien izenean, adierazi zuenez, harrিতuta daude Udalak hezkuntza politika arloan hartutako jarrerarekin, eta bide historikoe-taraitzultzeko bultzada emateko elkartu ziren prentsaurrean. Ez dute ulertzen nola eten duen alkateak hitzarmena, aldebakarreko erabakiz, udalbatzak bere garaian onartutakoaren aurka.

Orbañanosek gogora ekarri zuen, nola

1993an publiko bihurtzeko legea indarrean jarri zenean, Orioko Udalean ordezkari-tza zeukaten alderdi politiko guztiek (EAJ, EA eta HB) eskatuta, sare publikotik kanpo geratu zen Orioko Herri Ikastola. Erabaki horrek arazo ekonomikoak ekarriko zituela jakinda ere, Jaurlearitzak ordainduko ez zizkieten gastuen kargu Udala bera egingo zela hitzartu omen zuten, jendaurrean; herri ekimenetik sortutako eskola eredu-a zela argudiatuta.

Bestalde, alkatearen hitzak gezurtatu nahi izan zituzten lehendakariak: *Esanak esan, ez gure garaian eta ez gaur egun, ez dago lege edo arau bakar bat ere Udalari eragozten dionik Ikastolari finantzazio publikoa ematea*. Ikastolaren eraikin eta instalazioak Udalaren ondare eta, hortaz, herriarenak direla azpimarratu zuten atzetik.

### Etxez etxe

Prentsaurrekoa eman eta bi egunetara, ohar bat banatu zuten Ikastolako ordezkariak etxez etxe.

Orioko Herri Ikastolaren izaera gogorarazteaz gain, zer nolako gastuak dituzten adierazi dute bertan: Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzekin, orduan eta gaur ere, Ikastolaren gastuen %70 estaltzen omen da.

Udalak martxan jarriko dituen hezkuntzako diru-laguntzek egingo dieten kalteaz ere badute zeresanik: oharraren arabera, alkateak hitzarmena eten arteko azken hiru urteetan, 302.323 euro jaso ditu Ikastolak –urteko, batez beste 100.774,33–; hemendik aurrera, 53.000 euro, hau da, erdia jasoko luke urtean.

### Sinadura bilketa

Bestelako hainbat ekimen ere jarri dituzte martxan Orioko Herri Ikastolako ordezkariak: urriaren 22an, hitzarmena berreskuratzearen aldeko sinadura bilketa, *Udala eta Ikastolaren hitzarmen historikoari bai* leloa izango duen kanpaina, jarri zuten martxan. Ikastolan bertan, Il Gelato kafetegian eta Lore eta Uranga burdindegietan izenpetu daiteke. Azaroa bukatu arteko epea izango da zerrenda horietako batean izenpetzeko aukera.

Bestalde, ikasle ohiei, guraso ohiei, eta azken finean, herritarrei, zuzendutako bilera irekia egitekoak ziren urriaren 27an, haiek ere azalpenak zuzenean jaso dituzten.



Geltokia eta trenbidea inauguratzeko zinta moztu zuten agintariek. KARKARA

# Altueran dabil trensa saihesbide berriarekin

Geltoki eta trenbide berria irekita daude, baina udaberrira arte, geltokirako sarbidea egokitu, ibilgailuentzako saihesbidea egin eta geltokiko aparkalekuak egin arte, ez dituzte lanak guztiz bukatuko



Goizean goiz herritarrek izan ziren geltokian aurrena. KARKARA

Lanak uste baino lehenago bukatuta, urriaren 18tik aurrera irekita dago Aia-Orioko trenbidearen saihesbide berria. Hemendik aurrera, hortaz, geltoki berri eta modernora igota –igogailuan edota eskaileretatik– hartu beharko dugu tren: lanak hasi aurretik bezala, Orio alde-rako nasan, Donostiarantz joan behar badugu; Aia alderakoan, Zarautz aldera joateko. Txartelak, berriz, geltokiko lehen solairuan erosi beharko dira, bertan dauden makinetan.

Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailburu Iñaki Arriolak adierazitakoaren arabera, egiteko dauden bikoizketa lanak bukatuta, tren zerbitzua hobetu egingo da: alde batetik, Donostia eta Zarautz arteko bidea egiteko denbora gutxiago behar izango du trenak –31 minutu behar ditu orain; 25 minutu gero–; bestalde, maiztasun handiagoarekin izango ditugu trenak, 15-20 minuturo, hain zuzen ere.

## Udaberri aldean dena bukatuta

Trenbide sarea irekita badago ere, obrak erabat bukatzeko daude oraindik eta ez dute lan erraza tren erabiltzen dutenek geltoki berriraino iristea: aldrebes samar dago bidea, sigi-saga, aurrena eskuinera, gero ezkerrera, koskak gora eta behera. Orio aldeko espaloitik, Enbileneko etxe paretik, geltokira igotzeko igogailua eta N-634 errepidearen gainetik igaroko den pasagunea egiteko daude oraindik. Horrek batera egokituko omen dituzte geltokirako oinezkoentzako sarrera eta irteerak. Horiek bukatuta, ez da errepidea gurutzatu beharrik izango, geltokira iristeko.

Geltoki berriaren alboetan, zubiaren azpialdean, 55 ibilgailuentzako aparkalekuak egingo dituzte, ibilgailuentzako saihesbidea egokitu bezain pronto. Jon Redondoren hitzetan, herri barruko zirkulazioa arinduta, Oriori dagozkion garraio azpiegiturak bukatutzat emango dira horrela. Sei bat hilabete barru bukatu nahi dituzte lan guztiak.

Bestalde, datorren udaberritik aurrera tren berri-berriak izango ditugula ere aurreratuta zuten Eusko Trenbide Sareko ordezkariak, trenbide saihesbidearen inaugurazio ekitaldian bertan.

**Joana Murgiondo**  
Asegurua-agentzia

ASEGURUA

Abeslari, 4- 2. esk.  
Tfnoa: 943 13 46 07

**WEB**

DISEÑO  
PROGRAMAZIONA

JON CEREZO OTANO

TEL: 691-31-22-40

MASAJISTA

**Kosue**

Lunbalgia  
Kontrakturak  
Eskoliosia  
Drainatze linfatikoa  
Ziatika

Abeslari kalea, 4  
Orio  
Tf: 943 57 74 26



Amilibia Malaysiako helmugan . SABAH TOURISM BOARD

# Amilibia laugarren mendi lasterketen Munduko Kopan

Malaysian jokatu den azken proba puntuagarrian, bederatzigarren tokian bukatu du korrikalari aiarrak eta Munduko Kopako sailkapen orokorrean, irabazlearengandik 66 puntura gelditu da

Malaysiako Borneo irlan, Mount Kinabalu International Climbathon proban, izan da Nerea Amilibia korrikalari aiarra. Munduko Koparako puntuagarria zen azkena proban, gogorrean, 21 kilometroko ibilbidea egin zuten korrikalariak eta Nuria Picas kataluniarra izan zen garaile. Lasterketa amaitzeko 3 ordu, 28 minutu eta 7 segundo behar izan zituen. 2. postuan Zeelanda Berriko Anna Frost (03:33.41) sailkatu zen eta 3.ean Emanuela Brizio (03:34.22) italiarra. Nerea Amilibiak bederatzigarren tokian bukatu zuen proba 4 ordu, 16 minutu eta 16 segundoko denboran.

Lasterketa amaituta, parajeak ikusgarri bezain beldurgarriak direla eta gogorra, oso zaila, iruditu zaiola aitortu du korrikalari aiarrak. Altuera eta hezetasuna ziren kezka nagusiak Nerearentzat, baina jaitsieran izan zituen zailtasunak. 8,5 kilometroko igoeran 2 ordu eta 41 minutu pasa zituen eta jaitsiera oso txarra izan zen, besteak beste eskailerengatik; koa-

drizepsakigo eta luzaketak egiteko gelditu egin behar izan zuen.

## Podiumean ez

Malaysiako lasterketaren ostean, pena txiki bat badu aiarrak Munduko Txapelketan podiumera ez igotzea. Sailkapen orokorrean hirugarren tokian zen azken lasterketaren aurretik eta denboraldia biribiltzeko mantentzea zuen asmoa, baina ezin izan dio postuari eutsi. Seigarren tokian zegoen emakumeak bigarren egin zuen Malaysian eta orokorrean ere bigarren postuan gelditu da. Munduko Kopan Emanuela Brizio italiarra izan da irabazle 382 punturekin, Zeelanda Berriko Anna Frost bigarren 374rekin, Cecilia Mora italiarra 352rekin hirugarren eta Amilibia laugarren 316rekin.

Munduko Kopan ez zuen hain aurrean ibiliko zenik uste eta laugarren postua txukuna dela eta oso gustura dagoela esan digu. Ahaleginak merezi izan du eta lortutakoarekin pozik dago aiarra.

## LABUR

### Arrauna

#### De Anta mundialean

Azaroaren 2an hasiko du Orioko Arraun Elkartean aritzen den Edorta De Anta tolosarrak Munduko Arraunketa Egokitu-ko Txapelketako abentura. Espainiaren izenean arituko da De Anta eta munduko 11 arraunlaririk onenak izango ditu kontra. Azaroaren 10ean itzuliko da etxera arraunlaria.

### Saria Olinpiar Jokoetan izan direnei

Eusko Jaurlaritzak ematen duen Kirolaren Euskadi Saria jaso zuten urriaren 20an Orioko Arraun Elkartearekin jardun duten hainbat kirolarik, noiz edo noiz Olinpiar Jokoetan parte hartu dutelako. 250 kirolarik jaso dute saria aurrean eta tartean izan dira, Eva Mirones (Atenas, 2004), Ibon Urbieta (Seul, 1988; Barzelona, 1992), Jose Luis Agirre (Seul, 1988) eta Jose Luis Korta (Mosku, 1980).

### Denboraldi berria prestatzen

Arrauna gustukoa izan eta datorren denboraldian traineru, trainerilla edota abarretan aritu nahi duten gazteei bertaitezko dei egin die Orioko Arraun Elkartek. Senior kategoriako gizon-emakumeek, berriz, azaroaren 2an hasiko dituzte prestaketa saioak.

### Squasha

#### Agirrek ezin laugarrena lortu

Hiru urtez jarraian txapela etxera eramanez, Iñigo Agirre oriotarrak ezin izan du urriaren 22an eta 23an jokatutako 4. Zarauzko Squash Txapelketa Azkarra irabazi. Finalera iritsi bazen ere, aurkari gogorra izan zuen bertan, Sergio Ramos, eta 3-0 galdu zuen Agirrek azken partida. Xabier Iribarrek eta Agustin Erkiziak, berriz, ez zuten lortu kanporaketak gainditzea.

### Dardoak

#### Silver Dart Cupean

Saloun-Katalunian- jokatzen den Silver Dart Cup txapelketan izan ziren urriaren 15ean eta 16an Unar taldeko dardo jokalariek. Zehazki, Orioko taldeko 4 lagunek hartu zuten parte, iberiar penintsulako jokalaririk onenen arteko norgehiagoketan. 9. postua - Maialen Murgiondok eta Joseba Unanuek bakarka; eta Unanuek eta Asier Garaiarrek bikoteka, promaster kategorian- izan zen lortu zuten hoberena. Hamabigarren izan zen J. Ignazio Azkonobieta, amateur kategorian.



KARKARA

# “Igoera-fasean sartu nahi dugu, herrira bueltatu garela ospatzeko”

## Clemente Fernandez eta Luis Clemente Fernandez

Orioko futbol taldeko entrenatzailea eta laguntzailea

Orioko eta Usurbilgo futbol taldeen artean 30 urte pasa ditu entrenatzaile Clementek. Mendibeltzera itzuli da aurten, alboan Orion jokalaria izandako semea duela. Kadeteen prestaketaz arduratzen dira biak.

### LORE BERASALUZE

Entrenatzaileak behar zituela-eta, Clementeren atea jo zuen iazko denboraldia bukatuta Orioko Futbol Taldeak. Ez zuten bi aldiz esan beharrik izan; semea alboan izango zuela ziurtatuta, baiezkoa eman zuen.

#### **Futbolearen ere elkarrekin aita-semeak. Ondo konpontzen al zarete?**

Clemente: egoera pertsonala medio, argi nuen bakarrik ezingo nuela taldearen ardura hartu eta lagunduko ote zidan zuzenean galdetu nion semeari. Prest agertu zen –baiezko biribil-biribila

eman zidan segituan – eta erronkari heldu diogu biok, elkarrekin. Orain arte bezala, primeran hartu naute. Zelai berria, instalazio apartak... gozatzen ari naiz.

Luis Clemente: ondo konpontzen gara; betiko martxa daramagu, oraingoz.

#### **Eskarmentua baduzue.**

C: 25 urterekin hasi nintzen entrenatzaile futbolearen eta Orioko eta Usurbilgo taldeetan, hara eta hona, ibili naiz. 15 urte egin nituen hemen; 4 urte gero han; beste 4 urtetarako itzuli nintzen hona; hurrengo biak Usurbilen egin nituen; orain berriz etxera nator. Tartean, pare bat urtetako deskantsua ere hartu nuen.

LC: 13 urterekin hasi nintzen ni futbolearen Antillako zelaian. Azken urteko infantila nintzen. Bertan eman ditut 10 urte eta iaz Usurbilen jokatu nuen, aitarengidarrizapean. Lan kontuak medio, futbolearen jokatzeari uztea erabaki nuen. Orain, gainera, prestatzaile fisikoa izateko ikasketak egiten ari naiz; ondoren, entrenatzailearenak egingo ditut. Odolean daramat futbolerako zaletasuna.

#### **Nola antolatzen duzue saioa?**

C: Asteazkenetan eta ostiraletan entrenatzen dugu. 18:00etarako ateratzen naiz ni lanetik eta beti nago mutilak entrenatzeko moduan.

LC: Nik, aldiz, txandaka egiten dut lan eta ordutegiaren arabera etortzen naiz; beti ere, ahal dudan guztietan hutsik egin gabe.


#### **Aukeran jarrita kadete mutilak hartu dituzue. Zergatik?**

C: Astean bi saio eginda nahikoa dutelako hartu ditugu kadeteak. Hortik gorakoek –jubenilek eta regionalek– hirutan egiten dituzte entrenamenduak eta ez ginen hortara iritsiko.

28 mutiko ditugu eta oso talde polita osatzen dute. Oso finak dira, gainera, saio guztietara etortzen dira-eta.

#### **Zein helburu jarri dituzue aurtengo denboraldirako?**

C: Jokalariak fisikoki eta taktikoki prestatuko ditugu aurrena; eta, batez ere, norbanako gisa hezten lagundu nahi diegu. Kirol emaitzei begira, bide onetik goaz, jokaturako bostak irabazi ditugu-eta, eta igoera fasean sartu nahi dugu, bide batez, gure itzulera ospatzeko.



KARKARA

## “Sakabi eta Egañazpi Urdanetara oinez etortzen ikusi ditut”

**Juan Luis Zumeta Iruretagoiena**  
Igeltseroa

Urdanetako parrokian dagoen Indo baserrian jaio zen Juan Luis. 25 urte zituela ezkondu zen Olaskoegia auzoko Gurrutxagaenea baserrira. Urdanetako San Martin festen atarian gaudenez, bertan bizi izandakoak izan ditugu hizpide

### PATCOWIE

Juan Luis ia astero bueltatzen da etxera ama eta anaia bisitatzerako eta, hutsik egin gabe, elkartuko da senideekin San Martin pasa eta hurrengo jaiean, ohiturak agintzen duen moduan.

**Gaztea zinela, nola antolatzen ziren auzoko festak?**

Hilabete bat lehenago bilera bat egin ondoren, 18 urte inguruko bi lagunek hartzen zuten ekintzak antolatzeko ardura eta, horretarako, koadrilako guztion la-

guntza izaten zuten. Ez da asko aldatu: trikitixa, bertsolariak, mutil-ardoa... Mutil-ardoa apaizen etxeko baxeran jartzen zen. Gaur egun, berriz, eskola izandakoaren etxe txikiaren beheko bodegan antolatzen da festa: taberna, mutil-ardoa... dena Disko Ximorren izenpean. **Eta gastuak kitatzeko sosa nondik ateratzen zenituzten?**

Txekor bat erosten genuen zozketatzeko. Gaur egun bizimodua estutu egin da, baina garai hartan patrika hobea zuten

no labait, eta erraz saltzen genituen zenbakiak 100 pezetan. Sei bat lagun joaten ginen Elgoibarko ferira eta, pilariketan, Elosura, txekorra kamioian sartuta; eta oso salmenta ona izaten zen.

**Auzokideak ere eskuzabalak izaten ziren oilasko biltzean?**

Bai, horixe. San Martin hirugarrenean, goizean abiatu, oinez, jakina, eta arratsaldeko laurak arte baserriz baserri joaten ginen, bidai handia eginez, oso aparte baitaude baserriak. Arratsean oilaskoak lumatu, prestatu, eta iluntzean afaltzen genituen gazteon artean eta baserri bakoitzeko gonbidatzen genuen nagusi batekin batera. Neskek ez zuten protagonismorik hartzen festetan; koadrilan parte hartu bai, nahi bazuten, baina ez zen ohitura hori. Orain bai. Askok aldatu dira kontuak.

**Garraioa, esterako.**

Hala da. Lehen ez zegoen Zarautzera edo Aizarnazabalera jaisteko biderik. Gogoan dut irudi bat: Sakabi eta Egañazpi kamioitik oinez etortzen ikusi nituen behin, soinua bizkarrean zutela. Zestoarrak ziren eta Aizarnabaletik zetozen. Festetarako gelditzen ziren Urdanetan, 2 edo 3 egun bertan bailaran emanda, etxe batean lo eginez.

**Auto gutxi ikusiko zenituen, orduan.**

Oinezko bide txar bat baino ez zegoen! Gu zazpi senide gara eta larunbatetan ama, astoa hartuta, Zarauzko azokara abiatzen zen, zerbait saltzera, pezeta batzuk egitera, beste zerbait erosteko. Go-

goan dut pertsona bat gaizki jarri eta Izetatik etorri ziren bila, *todoterreno* batekin mendi bidetik Zarautzera jaisteko. Urdanetan aurreneko autoak ezagutu nituen, Seat 124, esaterako, eta Zarauzko kamio berria estreinatzen ikusi nuen.

## Bizimodu zaila izaten al zen?

Moldatzen ginen. Senide askoko familiak ume baten bat senide gutxiko fami-

## “Txekor bat erosten genuen zozketatzeko. Elgoibarko feriara eta Elosurakora joaten ginen, eta oso salmenta ona izaten zen, zenbakiak 100 pezetan salduta”

“Senide askoko familiak, batzuetan, senide gutxiko beste familia batera bidaltzen zituzten beren haurrak, urte batzuk han pasatzera, denon onerako izango zelakoan. Nik neuk ere bost urte egin nituen horrela”

lia batera bidaltzen zuen urte batzuk pasatzera, denon onerako izango zelakoan. Gaztetxoak laguntza ematen zuen etxe hartan eta hartu zuen familiak gaztetxo zaintzen zuen. Gurean beste baserri bateko neska bat egoten zen amari laguntzen. Eta nik neuk ere bost urte pasa nituen Serorategi baserrian, kaskoan. Bederatzi urterekin joan eta hamalaurekin bueltatu nintzen etxera. Nirekin oso atseginak ziren, gainera, gurasoekin bezala bizi ginen. Handik eskolara joaten nintzen: 5-6 urtetik 14 urte bitarteko 25-30 ume, denak gela batean maestra batekin. Igande batzuetan etxera joaten nintzen egun pasa egitera. Normaltzat hartzen zen. Oroipen txarrik ez dut garai hartakoa.

## Telefonoa noiz ezagutu zenuen?

Serorategik bat zuen, bailara guztiko bakarra. Ni neu, mutil kozkorra nintzela, abisu eta enkargu askorekin ibilia naiz. Otzarretara, Maietara... eta oso-oso ondo eskertzen zuten, karameloak edo txokolatetako emanez. Baserriko amonak eta etxeakoandreak ondo ezagutzen nituen nik. Gaur ere, 24 auzo (baserri) dira eta denok ezagutzen dugu elkar.

## Gauzak onerako edo txarrerako aldatu dira, zure ustez.

Onerako eta, batez ere, gazteak. Oraingo gazteek gehiago kontsultatu egiten dute besteekin. Laguntasun gehiago dago gazteen artean festak antolatzeko, esaterako, eta niri horrek ematen dit poza. Txarrerako, ezer ez.

## SAN MARTIN FESTAK URDANETAN

### Azaroak 7, Jubilatuen eguna

**11:30** Meza nagusia

**12:00** Pilota partidaren finala

**13:00** Herri kirolak: Hodei Izeta eta Jagoba harrijasotzaileak. Iker Zubeldia eta Iban Urdangarin bertsolariek eta Astiazaran trikitilariak alaituko dute giroa

**Ondoren** Auzoko nagusien bazkaria, bertsolari eta trikitilariekin, Indamendin

**Bazkalostean** Bertso eta trikiti saioa

**18:30** Kalejira

**22:30** Astiazaran anaiak, Ximorren

### Azaroak 11, San Martin eguna

**10:30** Meza nagusia

**12:00** Auzotarren arteko herri kirolak, Ostolaza eta Andonegi trikitilariekin

**Bazkalaurretik** Emakumeek egindako patata tortilla lehiaketa

**18:00** Txerrikume harrapaketa

**22:00** Ostolaza eta Andonegi Ximorren

### Azaroak 12, ostirala

**22:00** Mus txapelketa, Indamendin

**23:00** Ximor irekiko dute

### Azaroak 13, larunbata

**16:00** Ume jolasak eta gozokiak

**17:00** Gorriti's Show

**Ondoren** Txokolate beroa bizkotxoekin

**21:00** Afaria: txahal jana, Beñat Lizaso eta Iban Urdangarin bertsolariekin eta Izer eta Alabier trikitilariekin.

Afarirako txartelak salgai Izarra, Begoña eta Izeta tabernetan eta Zarauzko Otzarreta harategian. Prezioa: 25 euro

**Afalostean** Bertso saioa eta erromeria Izer eta Alabier trikitilariekin

**Goizaldean** Baratzuri zopa

### Azaroak 14, igandea

**11:30** Meza nagusia

**12:00** Pilota txapelketako finalak

**Ondoren** Herri kirolak: Izeta II-Izeta III harria jasotzen eta Mugertza-Etxebeste aizkoran. Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak alaituko dute giroa

**17:00** Dema berezia

**22:30** Ansorregi eta Larrañagarekin

erromeria Ximorren

### Azaroak 15, astelehena oilasko biltze eguna

**07:00** Diana

**07:30** Oilasko biltzea Izer eta Alabier trikitilariekin

**21:00** Auzokoen afaria Indamendin

**Ondoren** Izer eta Alabierrekin erromeria

**23:30** Patata dantza Ximorren

**00:00** Traka zaratatsua

## LABUR

### Herri kirolak

#### IX. Kintopeko idi probak

Aiako idi demak elkarteak antolatuta, Aiako IX. Kintopeko idi probak izango dira azaroaren 5etik 9ra bitartean. Ostiralean, gaueko 22:00etan hasiko dira lehiak, probalekuan: Aizarnazabalgo Mendi-Txiki, Aiako Izeta, Aiako Arzadun eta Errenteriako Irarreta arituko dira nor baino nor. Larunbatean, berriz, Bakioko Uriagerekaren, Elgoibarko Soarteren eta Bakioko San Pelaioren idi pareak jardungo dira harriari tiraka. Berriatxuko Bikendi, Birleko Mendipe eta Legazpiko Telleriak neurtuko dituzte indarrak igandean; Errezilgo Bixkiak, Elorrioko Arientzak eta Orioko Olidenek, azaroaren 8an; eta Itziaroko Erretenek, Birleko Laskik eta Asteasuko Barriolak jokatuko dute azken txandan.

### Erromeria

#### Astiazaran, Izer eta Lertxundi

Erromeria denboraldia hasita, igandero moduan, trikitilariak jarriko ditu Andatzako Erromeria Elkarteak Aristerrazuko plaza gainean, urriaren 31n. Astiazaran, Izer eta Lertxundi arituko dira panderoa eta trikitia joaz, bertaratuak dantzari jartzeko. Hurrengo saioa, berriz, azaroaren 21ean izango da, San Martin festak tarteko ez baita erromeriarik izango hilaren 7an eta 14an.

### Udala

#### Zergak ordaintzeko epea zabalik

2010 urteko zerga egutegiaren arabera, uraren eta zaborraren hirugarren hiru hilabetekoari dagokion zenbatekoa ordaintzeko epea azaroaren 2an hasiko da eta azken eguna azaroaren 15a izango da. Jarduera ekonomikoan gainerako zergarentzako epea zabalik da irailaren 1etik eta azaroaren 10era arte izango dute herritarrek ordaintzeko.

### Jendartea

#### Lapurretak

Lapurreta dezente izan dira azken aldian herrian: Lardizabal eskolara sartu ziren urriaren 13ean eta etxebizitza batera hilaren 21ean. Bi kasuetan ostutako materiala berreskuratzeaz gain, lapurrek atzeman eta atxilotu zituen ertzaintzak. Ordenagailuen bila sartu ziren eskolan, baina aurkitu ez eta proiektorea eraman zuten; bitxiak hartu zituzten, berriz, etxebizitzatik.

# Santa Kandida

**B**i mila eta hamarreko urriaren 17an, orain dela dozena bat egun, Erromako Vatikanon santu izendatu zuten Gipuzkoako Andoain herrian jaiotako emakume bat; Ama Kandida deritzona. Ondo derizkiot, ekintza on asko egin duen gizaki bati ospe eta ohore eskaintza egitea. Eta merezi duen graduan jartzea.

Gipuzkoan, orain arte ez omen da santurik eta santarik izan. Beraz Ama Kandida dugu lehenengoa.

Ez dakit, Ama Kandida ondo deitzen ote diogun. Guri erakutsi ziguten, haurra izaten duen emakumea dela ama, birtartean ez omen zaio ama deitu behar. Baina, mundu guztiak hala deitu badio, gizakion arteko hautua izango da. Santu

eta santa kontu horiekin, ni nire gisara egon izan naiz pentsaketan.

Jarri kalendariora edo egutegiari begira eta urteak dituen egun guztietan dago santuren edo santaren baten izena. Noiz eta nork izendatu zituen horiek santuen gradura? Nola, eta zergatik?

Gizakiok ba al dugu ahalmena, gizakia neurri hartan jartzeko? Eta ahalmena

**Gizakiak zer egin behar du santu edo santza izateko? Lehenengo lapurra izan eta gero damutu? Zer esango du gure Jainko potoloak!**

baldin badugu, ez al dugu huts egiterik egingo, merezi dutenen batzuk, santu edo santa egin gabe lagatzen baditugu? Gizakiak zer egin behar du santu edo santa izateko? Lehenengo lapurra izan eta gero damutu? Emakumeenganako grina gaiztoa izan eta ondoren damutu? Zer esango du gure Jainko potoloak!

Orain, jarri gaitezen, baserri bateko aitona-amona zahar-zaharrei begira: beren gorputzak okertu arte lana egin dute aitzurrarekin. Hamar umeko familia hazi dute, Elizaren aginduak bete dituzte goitik behera, igandetako meza denak entzunez. Errezatu eta errezatu, beheko ezpainak luzatuta dituzte. Aitortu eta otarrakada bat jaun hartu. Apaiz etxera hainbeste oilasko eraman; eta ez al dute santu izenik merezi?



**Txokoak eta jendea**  
Aerobik eskoletan gorputza mugituz

Aerobik eskolak hasi dira aurten ere, kultur etxean. Hiru talde osatu dira oraingoan eta argazki honetako haurrak horien artean gatzetxoak dira; bost urte dituzte hain zuzen ere. Primeran pasatzen dute Ainara irakaslearekin gelan. Argazkian, ezkerretik eskuinera: Shuar, Nahikari, Nerea, Maitane eta Ander.





## OLESKARIZARRA ALTZOLAN BERRITUA

**1** 916an estreinatu ondoren, 40 urte beranduago, goiko argazkia atera zuten urtean, Donostiako Viktoria Eugenia antzokiaren eszenatokira eraman zuten berriz Jose Olaizolaren *Oleskari Zarra* opera.

Gerra ostean, Aiako Altzolan zegoela buraratu zitzaion Olaizolari lana berritzea. Pagoe-tatik itzuleran, Altzolako elizako *Abemariak* bidean harrapatu zuen: *Zerua gorri zegoen eguzkiaren azken printzekin. Zelaietako berdea, artaldean zuriak bakarrik hautsia: iluna-*

*barreko isiltasun magikoa, berriz, joaleen txilina-k bakarrik... idatzi zuen.*

Argazkian, Jose Olaizola anaia Gabrielekin –operako protagonista printzipala– ageri da, Schola Cantorumeko Ebaristo Bastarrika tenorea, Pablo Tamayo baritonoa eta Iñaki Ansoarena zuzendaria alboan direla.

Aiako San Estebaneko Amezua organoa ere Jose Olaizolak estrenatu zuen bere garaian.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: KUTXA

## karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

egunero-egunero,  
zuekin...

[www.karkara.com](http://www.karkara.com)

*Konektatuai!*

estilo berria

Ogitartokoak  
Plater konbinatuak  
Etxeko janaria  
Tintxoak

943 13 13 12

Aitor eta Gorka

**azkue**  
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7  
Tf/fax: 943 83 51 86

20809 Aia-Orio  
Carroceriasazkue@hotmail.com

# “Saihesbidea aldaketa ona izango da Oriorentzat”

## Eneko Goia

Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramailea eta Azpiegitura diputatua

Aiako bizilaguna. Bihar 39 urte beteko dituen donostiarra. Ezkondua eta hiru seme-alaben aita. Zuzenbidean lizentziatua EHUUn eta Europar Batasuneko zuzenbidean Deustuko unibertsitatean. **Donostiako Udalerako alkategaia** EAJ alderditik. Eneko Goia da.

### TESTUA ETA ARGAZKIAK:

#### IRATI AGIRREAZALDEGI

Aian egin dugu hitzordua, Donostiatik, eguneroko lanetik erretiratutakoan lasaitasuna eskaintzen dion herrian. Autoan pasatzen duen denboran lana izan ohi du buruan bueltaka, zeregin eta, era berean, lan tresna baitira errepideak, azpiegiturak eta horretaz ere aritu gara.

#### Donostiarra izan arren Aian bizi zara gaur egun. Nolatan?

Emaztea bizkaitarra da eta guretzat kokalekuaren bila hasita ikuspegi zabala izan genuen. Gauza askoren bila ari ginen eta Aiak eskaintzen zizkigun gustuko gauza horiek: bizi kalitatea, lasaitasuna... Arriskatu egin ginen eta oso pozik gaude. Donostiatik Aiara aldaketa bada,

baina erlatiboa. Ezberdinak dira, baina alboan daude. Beti esan izan dut, goizetan txakurrarekin buelta bat ematera ateratzen naizenean, kanposantu aldeira, handik Donostia ikusten dudala. Eguneroko zereginetara ere Donostiarra joaten naiz. Beraz, Aian bizi izanda Donostian neukana daukat eta, gainera, han ez neukan inguru eta giro lasai hau.



**Zer eskaintzen dizu toki bakoitzak?**

Donostiak aukera asko eskaintzen ditu aisialdiari dagokionez; baina Donostiak ematen ez duen bizi kalitatea du Aiak, lasaitasuna, naturarekiko lotura eta giza harremanetan bestelako gertutasun bat ematen du. Gure seme-alabak Aian kalean ibil daitezke lasai eta umeak non dabiltzan jakin ezean, herrian norbaitek jakiten du. Donostian kontu gehiago izan behar da eta harremanak ez dira hain espontaneoak. Sei urte dira Aian bizi naizela eta oso erraz moldatu naiz jendeak oso jarrera irekia duelako.

**Aiatik edo Aiara mugitzeko autoan ibiltzen zara egunero. Errepideetan zabiltzanean zer etortzen zaizu burura?**

Autoan ezin dut saihestu errepidearen egoerari erreparatzea. Lehen, Orioko gainetik Zarautzera joaten nintzen eta handik autopistaz Donostiara. Orduan Giltziturriko koska kontrolatzen nuen eta Zudugaraiko guneari ere erreparatzen nion; eta gaur egun ere ez daude ongi. Orain, beste aldetik joaten naiz eta Orioko saihebidetaren falta sumatzen dut. Sekulako aldaketa nabaritu dut Orioko sarrera-irteerarekin eta hirugarren erraiarekin.

**Orioko saihebidetaren Zuk ez ezik jende askok ere sumatuko du haren falta...**

Bi fase dira. Bat Euskotrenek geltokia inauguratuta egiteko dagoena, azken berrien arabera maiatzerako bukatuko dutena. Bigarrena da gurea, eta proiektua idazten ari gara. Orain lanak bukatuko dituzten lekutik diagonalean ibaia zeharkatuko du. Zaindu nahi dugu ibaia ahalik eta gutxien ukitzea, beraz, bitoitin izango ditu eta zintzilikakoa izango da zubia. Ez da erraza datak finkatzea eta proiektua bukatutakoan ikusi beharko da zein aukera ekonomiko dauden, baita alegaziorik badagoen ere. Izango dira konforme ez daudenak, baina, oro har, Oriorentzat aldaketa onerako izango da.

**Txankako bidearekin ere hasi dira.**

Bai, eta lanak epe laburrean bukatuko dituztela uste dugu. Autopistako ordainlekua ireki zenetik mugimendu asko izan da, hondartzara joateko bide eroso-agoa delako. Errepidea estua da eta bihurtze batzuk ez dira oso txukunak. Beraz, bidea zabaldu, bazterbideak egokitu eta hainbat bihurtze leunduko dira.

**Orio eta Aia inguruan errepideei dagokienez badago beste lanik egiteko?**

Aipatutakoez gain, ez dugu besterik esku artean. Berririk egin ez arren, egun dauden mantenua da egin behar nagusia. Aian azken urteotan egin dira lanak eta orain mantentzea dagokigu. Armendigaingo biribilgunea egin zenean Foru Aldundiaren eta Udalaren arteko

“Donostiak ematen ez duen bizi kalitatea du Aiak, lasaitasuna, naturarekiko lotura eta giza harremanetan bestelako gertutasun bat ematen du”

“Hirian kontu gehiago izan behar da kalean eta harremana ez da hain espontaneoa. Sei urte dira Aian bizi naizela eta oso erraz moldatu naiz herrira, jendeak oso jarrera irekia duelako”

“Orain lanak bukatzen dituzten tokitik diagonalean ibaia zeharkatuko du Orioko saihebidetaren. Nahi dugu ibaia ahalik eta gutxien ukitzea, eta bitoitinekin zintzilikakoa izango da zubia”

“Aian azken urteotan egin dira lanak eta orain mantentzea dagokigu. Aiako zeharkalea Udalaren eskuetara pasa zen eta orain frontoi aurreko aldea oinezkoentzat egokituko dute”

“Erabiltzeagatik ordaindu beharreko gauza bat dira errepideak. Norbere autoan ibiltzeak errepideetan duen eraginaz ohartzeko modu bat horrek zenbat balio duen jakitea”

“Ahalegin berezia egin behar da alternatibetan. Errepidea erabiltzeagatik ordaindu nahi ez duenari, beste aukera bat eman behar zaio eta ahal bada prezio hobean; Orion, trena”

“Donostiak gauza zoragarri asko ditu, baina badu bat berak eta gutxi gehiagok duena eta mundura zabal dezakeena bere ezaugarri bezala: euskal izaera, hizkuntza eta baita kultura ere”

akordioa zegoen eta, bukatutakoan, Aiako zeharkalea Udalaren eskuetara pasa zen. Orain Udalak frontoiaren aurreko aldea oinezkoentzako egokitu nahi du.

**Orion autopistako sarrera-irteera mar txan jarri zela urtebete baino gehiago pasa da. Zein balantze egin duzue?**

Oriori balioa eman dio eta sarrera-irteerarekin batera egin zen obra ere oso ongi gelditu da eta oso eroso da. Lehen Aritzeta joan zirenean hasieran zeuden bihurtzeak ikaragarriak ziren eta obretan ere pila bat sufritu behar izan genuen arren, merezi duela ikusi dugu.

**Ordainlekuei dagokienez, Batzar Nagusiek proposatu dute ordainlekurik gabeko errepideetan peajeak jartzea.**

Ezaguna da horren aldekoa naizela eta ardurak publikoak ditugunok herritarrei gai hori azaltzeko ahalegina egin behar dugu. Diru sarrera publikoak daudenak daude, eta pentsatu behar da zeri eman behar zaion lehentasuna eta zein gauza erabiltzeagatik ordaindu behar den. Errepideak dira erabiltzeagatik ordaindu beharreko gauza bat. Norbere autoan ibiltzeak eragina du errepideetan eta hortaz ohartu behar dugu. Horretarako modu bat da zenbat balio duten jakitea. Gipuzkoak egoera diskriminatzailea bizi du: mendebaldeko aldea – Eibar aldea – beti ordaintzen ibili da eta hegoaldeko aldea, N1a, ez. Desiragarria litzateke denak sistema berdintsu batera joatea, baina akordioak lortzea ez da erraza. Batzar Nagusietan lortutakoak peaje berriak jartzearen atea ireki du, baina salbuespen batekin: merkantzia garraioarena. Hori datozen urteetan Gipuzkoak ibili beharreko bideko pauso bat baino ez da. **Diru kopuru zehatz bat ordaindu eta autopista guztiak erabiltzeko sistema, ordea, ez duzu gustuko.**

Sistema horrek ahalbidetzen du urtean diru kopuru bat ordaintzea eta hortik aurrera dena libre izatea. Uste dut errepideak segun eta zenbat erabili, horren arabera ordaindu beharko litzatekeela. Orduan, autoan neurritz ibiliko ginateteke. Horrek eskatzen du ahalegin berezia egitea alternatibetan. Norbaitek errepidea erabiltzeagatik ordaindu nahi ez badu, beste aukera bat eman behar zaio eta, ahal bada, prezio hobean; Orioren kasuan trena litzateke alternatiba hori.

**A8 autobideko kuoten gainean hainbat kexa entzun dira. Landu duzue proposamenik horri aurre egiteko?**

Bigarren ingurabidea irekitzeaz gendela ez zen erraza izan sistema bat bilatzea. Gure helburua zen gidariekin aurreratzea saihebidetaren zaharra edo berria erabiltzea helmugaren arabera, eta ez prezioaren arabera. Prezioaren arabera, jarriko bagenu, ez genuke arazoa



konponduko eta gidariak lehengo bide-tik joango lirateke. Beraz, egungo sistema ezarri zen. Sistema horren arabera Zarautz eta Irun arteko tartean, zerbitzua hobetu denez, tarifa igo dugu. Jakin bagenekien horrek eragin zuzena izan zezakeela gipuzkoarrak izan eta egunero Donostiara joan behar dutenengan, eta horri aurre egiteko ViaT sistemaren bitartez deskontu berri bat jarri genuen eragin negatibo hori gaindituko duena. Batzuk kontra azaldu dira, baina lortu dugu egindako azpiegitura berriak bere funtzioa betetzea.

**Zuk esana da kontua ez dela errepide gehiago eraikitzea errepide sarea ongi kudeatzea baizik.**

Ikaragarritzko ahalegina egin du Gipuzkoak azken urteotan errepide sarea eguneratzen, beharra bazegoelako, eta oraindik batzuk falta arren, orokorrean egin dugu. Orain begiratu behar dugu hori kudeatzeko zein den sistema egokia. Jaurlaritzak bigarren ingurabidea Irunera arte luzatzeko ideia ikusi dut, eta sekulako hankasartzea iruditzen zait, onartuz gero, adieraziko lukeelako ez gabela gai izan gure errepidea kudeatzeko eta bidea libre utzi diogula errepide bitarteko garraioari. Egindakoa modu inteligentean kudeatu behar da, dauzkagun aukerak aprobetxatuz eta beste garraio modu batzuetara salto eginez.

**Oriok, Aiarekin alderatuta, baliabide gehiago ditu mugikortasunari dagokionez. Zailtasunak Aiarenak gehiago dira.**

Zaila da, baina Landabus zerbitzua erabiltzen da eta Aia horretan beste leku batzuetarako adibide izan da. Hain txikia den herrian ez da egokia pertsona bakarra bat bakarrik autobusez joatea. Aian nire etxetik plazara dagoen bidea, Donostian aparkatzen nuen tokitik portalera nuen, beraz, hori niretzat ez da distantzia. Hala ere, bada jendea tarte hori ere autoan egiten duena.

Garraio publikoan trenna da dudarik gabe bidea, alternatiba eskaini dezakeena eta gertu daukaguna. Aiarako eta Oriorako geltoki berria dugu eta ongi dago, baina bilatu behar dena da trenna maizago izatea eta joan behar dugun tokira lehenago iristeko bidea. Donostiako metroa hiriburuko proiektu gisa azaldu da, baina baliarik izango badu, probintziarako zerbitzua izan behar du. Zertarako nahi dut metroa Kontxatik Ondarretara joateko oinez lehenago iritsiko banaiz? Balioko luke Oriotik Errenterira joateko Easo plazan jaitsi eta trenez aldatu gabe. Egin beharko litzatekeena da biak desdoblalu maiztasuna irabazteko.

## AIAR BERRIA, DONOSTIAN ALKATEGAI

**A**iatik Donostiara begira jarritzen denean bere hiria dator-kio burura Eneko Goiari, baita hango Udala ere. Izan ere, Donostiako alkate izateko hautagai izango da hurrengo hauteskundeetan. Pixka bat aiarra sentitu arren, donostiarrak dela ezin da ukatu eta bere alderdiaren, EA Jren, proposamena onartuz izango da alkategai.

Aian bizi eta Donostiako alkatezarako aurkezteari buruz askok azaldu dio bere zalantza, baina ez dator bat Goia berekin: *Nik ulertzen ez dudana da XXI. mendean metropoli-gune handi bat izanik, nola den jendearentzat hori hain eragozpen latza; azken finean Gipuzkoa hiri handi bat besterik ez da. Gero eta maizago gertatzen da herriko alkatea beste herri batean bizi izatea. Gaur egungo Donostiako zinegotzien bizilekuei erreparatuz gero ikusiko genuke asko ez direla Donostian bizi. Madrilen biziko bagina, zailtasuna fisikoa litzateke, baina ez da kasua.*

Alkategai bada, baina alkate izanez gero badu bere alderdikideekin Donostiak izan behar duenari eta izan behar ez duenari buruzko ikuspegia. *Nazioarteko proiektioari dagokionez, ikaragarritzko lana egin beharra dago. Donostiak gauza zoragarri asko ditu, baina badu bat berak eta gutxi gehiagok duena eta mundura zabal dezakeena bere ezaugarri bezala: euskal izaera, hizkuntza eta baita kultura ere.*

Udaleko agintea lortuz gero, gauzak egiteko moduan ere aldaketa dezentte egingo litzukeela adierazi du Eneko Goiak: *Donostiako Udalarri dagokionez, ezaugarri negatiboen artean, beti azaltzen da gardentasun falta eta hori hobetze aldera gauza asko egin daitezke.*

Donostiara begira, bai, baina pixka bat aiarra sentitzen den neurrian izango al litzateke noizbait Aiako alkategai? Harritzen dela dio. Are gehiago une honetan bere burua Donostiako erronkan daukanean. Hala ere, Aian, duen kargua duela herritar bat gehiago dela dio eta hori estimatuzkoa dela. *Kalean normaltasun osoz ibiltzea gustura egotekoa da.*

# Herrigintzaz eta politikaz

**U**dalarena eta herriarena. Ofiziala eta alternatiboa. Banatuta dago herrigintza, azken agintealdian nabar-menago. Orio txikian tristea da hori, lanean borondatetsu dabilen jendea norbere aldetik jardutea eta errezeloz erreparatzea. Pertsonalki, Udala eta herriko kultur taldeen arteko elkar-lanean sinisten dut. Esaterako, herritar asko harritu da gaurko bertso saioan Udala laguntzaile azaltzen delako. Inork azalduko al dit zein den galdera? Non dago arazoa?

Errikotxian sufritu izan dut hori, bertsozaleenganako konfiantza falta modukoa, aparte jaten ematekoak bagina bezala. Gaztetxearekin areagotu egin da sentsazioa, muturrekoa izateraino. Politikan sartuko zarete eta ez. Dena ez. Zer ez da politika? Alderdikeria da saihestu beharrekoa, iraina eta burla. Zein da beldurra? Etxeluze *hatxeberoak* egiteko fabrika izatekoa? Lasai, badugu botoak

kontatzea baino kezka handiagorik. Herriko talde kulturalak oposizioarekin lotzeko jarreraren azpian maiatzeko hauteskundeak daudela pentsatzeak tristura ematen dit. Gutarra zara ala ez zara, botoa ematen digutenetakoa edo ez, galdera hori dago oinarrian. Zer egiten den baino, zeinek egiten duen da kontuan hartzen dena.

Goazen gaztetxearen gaira. Zein ele-

**Politikan sartuko zarete eta ez. Dena ez. Zer ez da politika? Alderdikeria da saihestu beharrekoa, iraina eta burla. Zein da beldurra? Etxeluze hatxeberoak egiteko fabrika izatekoa? Lasai, badugu botoak kontatzea baino kezka handiagorik**

gante gelditzen den gazteek leku bat behar dutela esatea. Zaharren Babes Lekua ere badagoelako. Gazteek komunikatzeko, lanerako eta aisialdia antolatzeke aukera behar dutelako. Diskurtsoak denak. Hau da lekua eta momentua: badugu lokala, bizilagunak molestatzen ez dituen. Aparte dagoena, aparta. Nagusia saltzeko prest dagoena. Legea omen arazoa, non eta gure herriaren... desiratzen zaudete Kostasen ezezkoa jasotzeko... zertan ari gara orduan? Borondate kontua da, baina hori ez da dendan erosten.

Gazteoi herriak behar duena aldarrikatzeko aukera ez diguzue kenduko. Gazteen bilgunea gara, ez talde terroristako kide. Are gehiago, elegante, estiloz eta txukun egiten dugunean. Hauteskundeen aurrean gatazka sortzearen ari ote gara? Pertsonalki, bost axola botoak, siglak eta halakoak. Nik herria bizi-bizi ikusi nahi dut, festan edo lanean.

**LOBETXU JETETXER**  
Eusko Gudari, 18 - Tel: 943 83 00 07

**LURDES**  
ARRAIA/DEGIA  
Eusko Gudari, 4 - Tel: 943 83 00 24

**RAMIRO**  
argazkiak  
ezkontza erreportajeak  
600 eurotik gora  
943 83 10 48 / 610 697 668  
www.fotoramiro.com

**islada**  
ESTUDIO ZENTROU  
Sheila De Mignel - Sasay Cendoya  
Balearen kalea, 2. beheko ordea  
Tel: 943 133 856  
e-mail: islada2010@hotmail.com

**Lizaso**  
dekorazioa  
Eusko Gudari, 4B  
Tel: 943 83 07 84 - Fax: 943 83 07 85

**LEIHOLAN**  
Aholkularitza tekniko eta erakusketak  
Fabrika Agote industrialdun Agote, 5 26740 Zestoa  
Erakusketak San Frantzisko, 3 30900 Zorauze Aita Iertxundi, 21 30810 Ormaiztegui Tel: 943 89 49 34

**KOLON TXIKI**  
guztiz argitu jabetzen  
Herriko Enparantza, 4 ORIO  
Tel: 943 83 00 44

ardoak, urdailkiak, gaztak, kontserbak, janari prestatuak  
**etxernalno**  
eramaten ditugu  
943 83 09 84 aita Iertxundi, 36 ORIO

# Askatasunean sinesten dut

**B**ost urte dira Aia eta Orioko parrokiak zerbitzatuz Orion bizi naizela. Eta ez da lehen aldia kazeta honetan zerbaiten inguruan nire iritzia ematen dudala. Erljio gaiez, ordea, ez nahiz hemen jarduten, horretarako badut eta neuri dagokidan lekua.



umil jokatzea – badakit zertaz ari naizen.

Nik gizatasunean sinesten dut lehen-dabizi, hau da, benetako pertsona izaten saiatzean eta bizitza honetan zoriona aurkitzean. Eta nik, Nazareteko Jesusen bizi egitasmoa biziz egiazko pertsona eta benetan zoriontsu izan nintekeela sinesten dut. Eta hori bizitzen

eta ospatzen laguntzen diot nahi duenari: nahi duena etortzen baita, gu ez gara inor ekartzera joaten. Baina aldi berean uste dut, askatasunaren alderdi on bat dela bakoitzak bere bidea bilatzea eta aurkitzea. Horregatik, errespetuz onartzen ditut beste erlijioak eta sinesmen aukerak. Batzuetan benetako aberastasunak eta alderdi onak aurkitzen ditudalako. Besteetan, gutxiago gustatu arren, libre aukerata dabilen jendea dagoelako. Onartuko ez nukeena, pertsona hondatzen duen zerbait izango litzateke *sekta* dei geniezaiokeen zerbait, alegia.

Eta lehen aipatu ditudan bi idatzietan denoizor zaigun gutxiengo errespetu hori urratua sumatu dut. Batek oraingo erlijio agerpen berrien aurrean duen jarreragatik, Elizaren historiaren latsa diren gurutzadetako *aporellos* hura gogoratzen baitit. Besteak, Eliza katolikoari buruz nahi duena esateko eskubidea izan arren, Eliza definitzen saiatzean, bere burua definitu baitu aiar eta oriotar guztion aurrean. Ni ez naiz ez multinazional bateko kide ezta inoren pederasta ere. Eta kristau katolikoa naiz. Badira Eliza horretan lotsarazten edo haserrarazten nauten zenbait jokabide, baina Eliza hori da nire Eliza eta hor aurkitzen nahiz zoriontsu. Batek bere ama, den bezalako izanik, ama delako maite duen bezala.

Nire Elizarentzat inondik inora nahi ez ditudan jokabideak dira: intolerantzia, inposaketa, debekua eta abar. Eta bi idazle horiei jokabide horietatik bat baino gehiago sumatu dizkiet. Beraz arrazoi bat gehiago nirearekin geratzeko.

Oraingo joera esoteriko horiek... nik ez ditut atsegin. Baina akaso norbaiti lagundu egingo diote zoriona aurkitzen.

KARKARAREN azkeneko bi aleetan, ordea, erlijioari, erlijioei edo sineskeriei buruzko idatzitua bana irakurri dut. Bata ezagutzen eta estimatzen dudana norbaitena, bestea ezagutzen ez dudana eta estimatzea zail gertatzen zaidan beste idazle batena. Biak ala biak urrutitua gertatzen zaizkit, haiekin ados egoteko.

Ez dut harrokeriaz eta jakin ustez jardun nahi. Baina gure herrietan nagusien den erlijioaren arduraduna naiz. Gure herrietako biztanleriaren % 8-10 bitartean astero etortzen da elizara. Gure herrietako haurren hirutik bik gutxienez bataioa eta katekesiko kristau-heziera jasotzen du. Gure herrietako ehuneko ehunaren hileta elizkizunak elizan egiten dira oraindik. Eta nire heziketagatik, katolikoaz gain, beste kristauak eta beste erlijioak ere zertxobait ezagutzeko aukera izan dut. Beraz, egiari hutsik egin gabe – eta egiaz jardutea da

**Ni ez naiz ez multinazional bateko kide ezta inoren pederasta ere. Eta kristau katolikoa naiz. Badira Eliza horretan lotsarazten edo haserrarazten nauten zenbait jokabide, baina Eliza hori da nire Eliza eta hor aurkitzen nahiz zoriontsu. Batek bere ama, den bezalako izanik, ama delako maite duen bezala**

**Nire honetan**  
Irati Agirreazaldegi

*Hil eta gero,  
salda bero*

**S**antu Guztien eguna. Hildakoak goratu edo santuen pare jartzeko erabiltzen duguna. Edo oroituhutsagatik hildakoak santutzat hartu behar ote du biziduna?

Esaera zaharraren arabera besteen pekatuak ikusita denok gara santuak, baina egun hori aintzat hartzen ez duen horrek egiten du pekatu? Ba, horrela bada, ni pekatari; hortik atera kontuak.

Ez pentsa hildakoak ez ditudanik ekartzen gogora. Joan direnekin pasatuko uneekin oroituhuts gabe ez goaz inora. Baina bizirik direnean beren aldamenegoteko izan dugu nahikoa denbora. Hil ondoren alperrik dira hainbeste kandela eta lora.

Kanposantura azaroaren lehenengoan joaten direnak hartzen dituzte askok santu gisan, baina benetan gutxi izan. Zenbat eta zenbatean behin ikusten ditugu bada elizan? Hileta elizkizunetan itxurak egiten begira zenbat dabiltzan.

Derrigorrezko gauzak bi direla diote: hil eta, hil arte, bizi. Hil eta gero, berriz, salda bero. Eta ni hilez gero? Inork hilerrira niri lorak ekartzetik ez dut berehalakoan espero edo horrelako eskaririk ez nuke egingo, ez nuke nahi kanposantura joan nahi ez duten ingurukoengan sortzerik hainbeste enredo. Hil dena bere horretan bego.

**ITSASADARRA, S. L.**

Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria  
finika administratzailea  
gestoria  
empresariak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 25 - Fax 943 83 54 98 - itsasadarra@itsasadarra.com  
Itai Ondo 4, behea - 20510 Oriu



**ACTIVA**



ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Juan Albizu

Abentur 6 - Tel / Fax 943 83 12 33  
20609 ORIO

**Alustiza Autobusak**  
Alustiza Bideak S.L.



Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 93



**ARDATZA** modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

**ARKAITZ**  
Taberna

Pinxoak,  
plater konbinatuak  
eta ogitarako mundialak

ABREILAREN KALDAIA • TEL: 943 83 10 57

**bodegas ERRASTI, S. L.**



Eskuaklerako banatzailea  
Zudugarai, Getariako txakoltza  
Ilagares, ardo gorri nafarra  
Bodegas Gallur, Señorio de Laurgain  
Gallur eta Ardandegi  
Arabar Errioxako ardoak

Euzko Gudariak 46 ORIO • 943 83 03 86 / 83 58 52 • E-posta: bodegaerrasti@euskaltel.net

Igo zaitez haize berrietara!

**Galerna I**

943890416-677 49934  
galerna1unic@holmail.com

Kinkladenda - Ume arropa

**argine**

www.lasonei.com/argine  
Tel. 943 13 48 88

25eko DEKONTUA FAMILIA  
UGARJEN TXARTELAREKIN

**ARISTERRAZU**  
jatebxea

Andatza auzoa AIA  
Tel. 943 83 45 21

Carmen eta Txomin  
ARRANDECIAR



943 83 05 37 / 943 83 27 47

**INDO**

Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA



Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

**Automóviles ZARAUZ**

OTROEN ZERBITZU OFIZIALA

ZARAUZ, W. 943 13 13 50

Pinturak  
**ELKAR**

pintura eta paperatze lanak  
zoru leunketa

Ahoratuta Inbust-Ordea  
943 83 08 45 / 943 60 27 35  
ZARAUZ

AHOLKULARITZA  
Fisika, laborala, kontablea

**Eugenio Garmendia**  
ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1  
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

jatebxea

logelak

**gazteategi**

Elkano auzoa  
943 13 16 06

**Goizeko**  
KAFFETEGIA

943 83 28 55

Ara Lortxundi 33 barnea - ORIO  
Autobus parada ondoan

**Gabon**  
TABERNA

plater konbinatuak eta pinxoak

Tfnos: 943 83 06 09

**HAIZE BERRI**  
taberna-jatebxea-kafetegia

Plater konbinatuak,  
baketak,  
hamburgerak,  
ruloak,  
eguneko menua...

ETA ETERRA ERAMATEKO ZERBITZUA!

Elkano auzoa, Ibaia 1 • 943 83 13 21 • Aholku profesionala

**BACHEN LOREAK**  
OREKA ENERGETIKOA

- tratamendu naturalak -  
- oreka energetikoa -  
- bachen loreak -

Inés Fernandez Huelgani  
Tel: 655 726 291  
email: ocaia.dus@bch.com

**ITZIAR**  
kirolak

Tel. 943 83 31 03



# Gaia emanda

## Orioko aparkamendu sistema egokia al da?

Sarri entzun izan ditugu herritarren kexak Orion aparkatzeko dauzkagun zailtasunak direla eta. Indarrean dugun sistemaren alde onak eta txarrak jaso nahi izan ditugu

### Bizitzeko herria behar dugu

**A**parkatzeko espazioa optimizatzeko sortuzen TAO esaten diogun sistema. Sistema hau Zirkulazio Kondean dagoen *Zona Urdina* izeneko aparkaleku-motatik dator; Udalak definitzen duen eremu bat da zona urdina, aparkatzeko denbora mugatzen duena eta zigorrak ezartzen dituena muga hori gainditzen dutenentzat. Sistemaren helburua da saihestea ibilgailuek denbora luzez okupatzea aparkalekuak, toki hori beste batzuek ere erabil dezaten.

Orion zona urdineko sistema aplikatzen da kale batzuetan: ibilgailuek aparka dezakete kale horietan kanonik ordaindu gabe, baina denbora mugatuta daukate. Udaltzainek kontrolatzen dute sistema eta denbora-muga errespetatzen ez dutenak zigortzen dituzte. Antillako hondartza eta autopista arteko eremuan, berriz, TAO sistema daukagu eta bertan, udako hilabeteetan, gidariek kanon bat ordaintzen dute aparkatzeko. Ordaintzeko betebeharra herritik kanpokoek bakarrik dute; Orion errolda-

**Kaleak ibilgailuek okupatzen dituzte eta herritarrok pasillo estuetan barrena mugitu behar dugu**

tuek eranskailu bat dute, doan aparkatzeko aukera ematen diena. Sistemaren helburua dirua biltzea da, kanpotik datozen bisitariek ere beren alea jar dezaten hondartza mantentzeak sortzen dituen gastuetarako.

Etengabe handitzen ari den ibilgailuen kopuruak arazoak sortzen ditu gure herrietan eta arazo horiek haserre eta egonezin ugari sortzen dute herritarren artean; ibilgailua uzteko toki baten premia obsesioa bihurtu zaie herritar askori eta ezinbesteko

**ZIA**

koa da gaia arrazionalizatzea. Aukera egin behar dugu: bizitzeko herriak nahi ditugu ala ibilgailua uzteko herriak? Hamar ibilgailuk okupatzen duten tokian haur parke bat egin daiteke auzo oso baterako. Gure herrietako kaleak ibilgailuek okupatzen dituzte eta herritarrok —guztiok gara herritarrok, ez ahaztu— pasillo estuetan barrena mugitu behar dugu. Kontzientzia sortu behar dugu, herritarrek muga dezaten ibilgailuaren erabilera herrietan: Orion distantziak txikiak dira eta ez dago etxepaan aparkatu beharrik. Beste aukera da tresna egokiak erabiltzea, jendeak zona jakinetan aparkatzea bultzatzeko edo, —hau da aukerarik gizatiarrena— zona batzuk oinezkoentzat gordetzea. Urte asko daramatzagu ibilgailuekin elkar bizitzen, baina oraindik ez dugu ikasi.

**Jesus Rodriguez**

Obra eta zerbitzuetako zinegotzia

### Salmentak galtzea eragiten du

**M**erkataritza jarduera ekonomiko garrantzizkoa da Orion, goraka doana eta lanpostu asko sortzen dituena. Jarduera horrek egoki funtziona dezan, nahitaezkoa da aparkaleku sistema on bat izatea, kontsumitzaileei —batez ere, herritik kanpokoek— erosketak egitea erraztuko diena.

Gaur egungo aparkaleku sistema zaharkitua geratu da eta estresantea da bai bezeroentzat eta bai hornitzaileentzat (errepresentanteak, garraiolariek...). Erosleek lasaitasuna behar dute erosketak egiteko. Erosle

**BOGA**

**Egungo sistemarekin, bezeroek beti adi egon behar dute udaltzainak noiz papertxo jarriko. Tentsio horrek estresa sortzen die bezero eta merkatariei, eta salmentak galtzea eragiten du. Irtenbidea? Futbol zelaiaren azpiko aparkalekuak publikoak eta ez-doanekoak izatea**

batek, normalean, establezimendu batean baino gehiagotan egiten du eguneko erosketa eta, gaur egungo sistemarekin, bezeroek beti adi egon behar dute udaltzainak noiz papertxo jarriko. Tentsio horrek estresa sortzen die bezero eta merkatariei, eta salmentak galtzea eragiten du.

Arazo horren irtenbidea, Arkupe elkarteak beti eskatu izan duen bezala (gogoan izan, bere garaian, sinadura bilketa bat egin genuela eta 1.500 sinadura jaso genituela), honako hau da: futbol zelaiaren azpiko aparkalekuak publikoak eta ez-doanekoak izatea (doan utziz, bakarrik, lehen 90 minutuak);

era horretako aparkalekuak ireki dira, besteak beste Azpeitian, Bergaran eta abar. Guk irtenbide posible hori proposatzen dugu aparkalekuen arazorako; gutxienez, epailek epaia ematen duten arte aparkaleku horien legezko-tasunari edota ez-legezko-tasunari buruz.

Hori dela eta, aurtengo abuztuan alkatearekin eta bere alderdiarekin hitz egin genuen eta adostu genuen aparkaleku horiek publikoak izatearen errentagarritasuna aztertzea. Adostu genuen dokumentazio jakin bat emango zigutela, azterketa hori egiten hasteko; baina gaur egun dokumentazio horren zain gaude oraindik.

**Arkupe elkarteak**

Merkatari, ostalari eta profesionalen elkarteak



Oteizaren jaioteguna gogoratu zuen Oskarbi taldeak bere emanaldian. KARKARA

# Esperantzari leiho bat zabaldu omen diote...

## Kritika Oskarbi taldea

**Taldeakideak:** Iñaki eta Bakartxo Maritxalar, Jose Luis Treku, Beronik Ondikola, Maite Aizkorreta, Karlos Ruiz eta Gontzal Iñarra.

Oskarbi taldeak kantaldia egin zuen urriaren 21ean kultur etxean, Oteizaren jaioteguna gogoratzuz. 19:00etan hasi zen emanaldia eta 80 entzule inguru bildu zen. 8 minutuko DVDarekin hasi ziren; taldearen sorrera eta ibilbidea ikusi genituen, oroitzen zaharrak gogoraziz; hunkigarria benetan.

*Mutil txaleko gorria* abestiarekin hasi zen emanaldia:

kantu alaia, 6 ahots ondo enpastatuak, gustu handiz abestutakoa, akordeoia, panderoa, gitarra, pianoa, flauta eta atabalak folk ukitua eman zioten abestiari.

Jaialdia 3 zatitan banatu zuten: lehena Oteizaren inguruko abestiek osatua, *Es-kutari*, *Hiru gauean*, *Trintxerpeko bilera* eta *Androkanto*. Bigarrenean, aipatzekoa *Xirimiri*: hunkitzen duen abestia, polita benetan. Sehaska kantak eta balea harripatzailearenak osatu zuten zati hori. Musikari laguntzaileek lana ondo bete zuten, gauza sinpleak baina politik eginez –azpimarratzekoa 16 urteko perkusio jotzailea–.

Bitoriano Gandiagaren olerkiak izan ziren azken zatian: *Hitz urri*, *Begira gaua...* eta *Esperantzari leiho bat*.

Aretora gerturatu ziren gehienak 40 urtetik gorakoak ziren; 5 ume ere bai. Gazte jenderik ez ikusteak benetan harritu ninduen; euskal kantagintzan Oskarbi izan duen eragina ezagututa, batez ere; euskal musika eta literatura ezagutzeko modu aproposa; ez da aukera asko izaten taldea kantuan entzun eta ikusteko; beraz, aprobeitza ditza-gun aukerok gure kulturari bultzadaxoa emateko. Mila esker, Oskarbi.

IMANOL URKIZU

## Ikasleak idazle Ane Arriola

### Ohartzea besterik ez da

Egunero bizikletaz harantz eta honantz ibili gara uda osoan. Ez dugu bizikleta ezertarako baztertuta utzi. Horregatik, orain konturatu gara bidegorriak beharrezkoak direla; izan ere, ez diogu garrantzirik eman oinezkoak bidegorrien eremua zapaldu dutela ikusi arte. Bizikletaz bertatik pasa nahi, eta pasatzeko lekurik ez daukagula konturatu gara.



Egia da denoi noiz edo noiz, konturatu ere egin gabe oinak

eremu gorri joan zaizkigula eta bai, normala da. Baina inguruan gaudenean, erreparatzen ikasi behar dugula iruditzen zait. Momenturo, gure bizikleten txirrin hotsa entzun behar izaten baitugu eta, ohartzen ez diren pertsona horiek atzean gaudela konturatu, alde batera pauso bat eman eta aurretik kentzeko soilik.

**Bizikletaz bertatik pasa nahi, eta pasatzeko lekurik ez daukagula konturatu gara**

**agirresarobe** ARKITEKTURA  
OBRA ETA PROIEKTUAK

ETXEBIZITZA ETA LOKALEN ERREFORMA PROIEKTUAK  
FATKADA ETA TEIATUEN ERABERITZE PROIEKTUAK, IRORRIAK  
OBRA ZUZENDARITZAK, INFORMAZIOAK, BEREKO KOORDINAGUNTZA

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK, HIRIBITZA, LURREN KODERAKETA

BORJA KUMBRUAGARE LEBETIKO, ARKITEKTA  
PURTIBIDE 3, 5. BILDEGA, ZARAUZ      HUB: 635 781 722

**ALTXERRI** Karta eraberritua

Asteburuan, eguerdi eta gutan,  
menu berriak

943830762

## » HANDIK ETA HEMENDIK



“Gure buruaz barre asko egin dezakegu, baina esaterako, azken 50 urteotan, euskalgintzak euskararen berreskuratze prekario eta partzial honetan egindako mundu ikuspegi batetik aztertuta, itzela da. Arlo

horretan asko daukagu konpartitzeko, paradiplomazia lan baterako aukerak badira, eta batez ere aukera dago esperientzia txikien elkarbanatze erreala egiteko.”

Jon Sarasua, irakaslea, Argia, 2010eko urriaren 24an.

## » OSPAKIZUNA



## Minbizia dutenak laguntzen

Bularreko minbiziaren Munduko Eguna urriaren 19an izaten bada ere, Orion ostegunarekin, urriaren 21ean, azoka eguna dela baliatuz, jartzen dute gaixotasunari buruzko informazioa eman eta dirua biltzeko mahaia bularreko minbizia duten elkarteko ordezkariak. Herri eskuzabala omen da Orio eta urtetik urtera diru gehiago jasotzen omen dute. Iaz 900 euro izan ziren.

## » ZORITXARRAK!

## Euskotreni

**G**eltoki berri-berria jarri digu Euskotrenek; aurreko astean bertan estreinatu dute Aiako eta Orioko erabiltzaileak.

Modernoak, gure garaietara egokitua, aktuala, erabilte-rraza... bezalako hitzak barra-barra izan dituzte ahotan lana aurrera eramateaz arduratu diren agintariek eta langileek; baina, utzi duten bezala, ez dago batere eroso jendearentzat: iristea bera korapilotsua da, erabiltzaileari lagunduko dion lagunik ez dago eta beste zenbait lekutan bezala, makinekin konpondu beharko ditugu arazoak. Azkenik, ez dugu ulertzen zergatik ez duten komunik jarri, hain modernoak eta polita den geltokian. Azkar joango zaito berri usaina, bazterretako pixa kiratsarekin.

uranga  
autozerbitzua

**Aliprox**

Euzko Gudari Kalea 13-15  
ORIO  
943 83 38 75

**AMILIBIA**  
ONTZIOZAK, S. L.

Irudi partuzko proiektu eta instalazioak  
guztiakako kharaketako arazoentzako

Olasoaga-gaia auzoa, 52  
34 943 83 08 29  
faxa 34 943 89 40 81  
amilibia@amilibia.com  
www.amilibia.com

**IZARRA BIDEOA**  
Artizaga 15, Orio  
943 83 38 81

309€  
319€  
499€  
329€

SAMSUNG  
TEKA  
ROOMBA

PROBLEMA  
REMOVE  
IN 21/22

**Eta gehiago 000**  
**10 HILABETE INTERESIK GABE**

# Arraun pista olinpikoa Orion ez egitea erabaki zen

## Duela 25 urte 1985eko azaroa

**D**enbora luzez zain egon ostean, azaroan jaso zuten Orion Eusko Jaurlaritzaren erabakiaren berria: Euskadiko arraun pista olinpikoa Orion ez egitea erabaki zuten.

Orioren izena Euskadiko nazio selekzioaren egoitza izateko hautagai sendo gisa ikusi zuten eta ibaian lan batzuk eginez gero, Orio leku egokiena zela pentsatu. Beste kokaleku batzuk ere aipatu zituzten, ordea, eta beste aukera baten alde egin zuten, azkenean.

Gainera, gehienen harri-durarako, Araban, arraun klubik gabeko probintzian, kokatu zuten arraun pista olinpikoa, Santa Engrazian.

Federazioarekin ere ez zeuden konforme. Izan ere, klubek uste zuten Espainiako Federazioaren estatutuetan Euskal Federazioaren autonomia ez zela aintzat hartu. Hori zela-eta Espainiako Federazioak estatutuak onartzeko deitutako bilerara ez joateko erabakia hartu zuten

Bilera hartan ez ziren euskal ordezkariak izan. Orioko arraun klubak, ordea, azaroaren 3an egin zuen batzarra eta han abian jarri zituzten elkarteko zuzendaritza eratze-ko hauteskundeak. Hautagai bakarra aurkeztu zen eta huraxe aukeratu zuten: Iñaki Sarasua, presidente. Bokal, berri, J. J. Lertxundi, J. M. Olasagasti, Koldo Olariaga, Patxi Sarasua eta J. Angel Garmendia. Sarasua eta Garmendia entrenatzaile zirenez, beste bi lagun izendatu zituzten aurrerago.

# (1985)

### Mutil-ardoak

Azaroa Ortzaikako jaien hilabetea izaten da. Azaroaren 11n San Mar-

tin jaiak hasi ziren eta ospakizun berezia egin zuten. 50 urtetik gora baziren mutil-ardo izenez ezagutzen zituzten 34 gazte elkartu zirela jaiak antolatzeke. Etxez etxe oilaskoak bildu eta bazkaria prestatzen zuten eta gero, besteak beste, korrikalariak eta esku-soinu doinuak izaten ziren. Ospatzeko bizi ziren orduko gazteek meza eta bazkaria egin zuten.

Abenduan dira, bai, herriko jaiak, baina, San Nikolas jaien aurrerapen gisa lehen aldiz ospatu zuten 1985ean koadrilen eguna azaroaren 30ean. Udalak antolatuta, txaranga batek gau giroa alaitu zuen larunbatez eta egun berezi horretan parte hartu nahi zuten koadrilek janzkera berezi eta berdin bat jantzi behar izan zuten soinean.

## Ibaian lanak eginda, Orio leku egokia izan arren, arraun pista olinpikoa Arabako Santa Engrazia urtegiaren inguruan egin zuten

## San Nikolas jaien aurrerapen gisa azaroaren 30ean koadrilen eguna lehen aldiz antolatu zuten

### Arrantza denboraldia

Oraindik lizentzien iraupen balioa bukatu gabe izan arren, Orioko arrantzaleek azaroaren erdi alderako erabaki zuten arrantza denboraldia bukatzea. Horren arrazoia izan zen azken aldirain gutxi arrantzatzen ari zirela.

Gainontzeko arrantza portuetan (Pasaia, Ondarru, Getaria...) azaroaren 11n hasi ziren itsasontziak kaiara ailegatzeko eta gerora pixkanaka betetzen joan zen Orikoa ere. Denboraldia ohi baino goizago amaitu zuten, beraz, urte hartan.

## » JAIOTAKOAK

- Elaia Lasarte Segurola, Orion, urriaren 23an.
- Julen Lekuona Campos, Orion, urriaren 17an.
- Mayling Berenice Pichardo Alvarez, Orion, urriaren 16an.


## » EZKONDUTAKOAK

- Stefan Iounut Costache eta Leslye Maricruz Molina Machuca, Orion, urriaren 23an.
- Nerea Gonzalez Penas eta Sabino Arevalo Turnes, Orion, urriaren 16an.
- Roberto Cuevas Padilla eta Anne-Calire Doméjean, Orion, urriaren 9an.

## » HILDAKOAK

- Ez da hildakorik izan.

.....  
 .. Eskela edo ..  
 .. urteurrenko ..  
 .. gogoangarria ..  
 .. Karkaran jarri nahi ..  
 .. baduzu, deitu gure ..  
 .. telefonora: ..  
 .. **943 83 15 27** ..  
 ..



**iñaki argazkiak caperochipi**

*ezkontzeka asmorik bai?*

www.ikapero.com/ezkontzak  
 659378751  
 ikapero@ikapero.com

**zkue**

Tf: 943 13 04 38

**Allianz**

**Marigre Zaldua**  
 aseguru agentia

Irati Ondo, 10 behe-oina  
 telefonoa: 943 13 47 62  
 faxa: 943 83 57 52  
 e-maila: zabalza@bazaruz.com@allianz.es

*eduztegia*

**ANTILLA**

*jukebox*

Alvarez kaler. 2 - Tfn. 938 83 29 00

# “Nora ez dakigu, baina oporretara joango gara, aspaldiko partez”

## **Maria Pilar Oliden eta Felix Masa**

Zaharren Babes Lekuko tarbernari ohiak

la 21 urte egin dituzte Maria Pilar Olidenek eta Felix Masak Zaharren Babes Lekuko tabernaren kargu. Duela aste gutxi hartu dute beste batzuek erreleboa. Hainbeste urtetan tabernak bie eman eta kendu diena izan dugu hizpide, besteak beste



KARKARA

### **LORE BERASALUZE**

Astelehenetik igandera lanean, asteak, hilabeteak eta urteak pasata, deskantsua hartzeko garaia iritsi zaie Felixi eta Maria Pilarri.

#### **Nola egin zineten tabernari?**

Maria Pilar Oliden: Lanik gabe nengoen ni eta familiarentzat bigarren diru-sarrerara primeran etorriko zela eta hartu genuen taberna, aukera izan genuenean. Ordura arte Esther *Akañak* izan zuen bere gain, zazpi urtez, eta haren aurretik Maria Luisa Sarasuak, bi urtez.

#### **Nola moldatu zineten hasiera hartan?**

MPO: Tabernako kontuez ez nekien zizpitzik ere eta Lurdes Atxegak asko lagundu zidan; zekiena irakatsi zidan. Betiko pintxoekin –txorizo eta haragi egozia eta salda– hasi ginen eta bestelakoak gehitzen joan ginen urteak joan ahala.

Felix Masa: Arostegiren tailerrean egiten nuen nik lan orduan ere, eta asteburuetan laguntzen nuen tabernan.

MPO: Seme-alabak ere txikiak ziren orduan –3 urte zituen gazteenak– eta urte zailak eta gogorak izan ziren haiek. Martxa hartu ahala, gauzak hobetuz joan ziren.

FM: Hala ere, alderako genuen, txikia zela taberna, ez zela orain adina jende ibiltzen. Izan ere, denak tabernatik pasatzen ez badira ere, 800dik gora bazkide ditu orain Zaharren Babes Lekuk. Askoz lan gehiago ematen du gaur egun orduan baino.

#### **Erraz hartu al duzue taberna uzteko erabakia?**

FM: Beno, adinean gora goaz gu ere eta 20 urte pasatxo tabernaren kargu egiteak edonor nekutzen du. Seme-alabak ere *derrigortuta* etortzen ziren asteburuetan laguntzera; ulertzekoa da, gainera, bakoitzak baduelako bere lanbidea eta asteburuetan atseden hartu nahi izaten dutelako.

MPO: Gainera, duela bi urtetik hona 15 eguneko oporraldia kendu egin zigten eta ezinezkoa izan zaigu horri buelta ematea. Guztiok nahi eta behar izaten dugu deskantsurako, ohiko bizitza alde batera utzi eta ahazteko beharra, urtean behin, besterik ez bada. Hori kenduta...

#### **Orain hartu beharko dituzue, hortaz, opor horiek?**

FM: Oporretara goaz, bai, baina oraindik ez dakigu nora. Hor gabiltza erabaki ezinik: hegoaldera ala iparraldera.

» AZOKA

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Alokairua**

■ Pisukide bila nabil, Orioko Abeslari kaleko etxe batean bizitzeko. Tf: 691 31 22 40 (Jon).  
 ■ Etxebizitza berria alokatzeko, Armendigain kalean, Aian. Hiru logela, bi bainugela, garajea eta jangela ditu. Tf: 629 68 04 10.  
 ■ Orion alokatzeko pisu bila nabil, urte osorako. 676 28 25 88 edo lan orduetan, 943 83 15 18.

**Salgai**

■ Garaje bikoitza salgai Erribera kalean. 38 metro koardue. 63.000 euro. Tf: 636 38 66 63 / 607 58 08 41.  
 ■ Duplexa salgai Arrantzale kalean. Tf: 670 90 04 23.  
 ■ Etxea salgai Eusko Gudarin. Handia eta go-

xoa da eta ganbara ederra ere badu. Tf: 639 20 27 64.

**Galdutakoak**

■ Belarritako biribilak galdu nituen irailaren 25ean, Arkaitz tabernaren parean. Oso maiteak ditut eta aurkitu dituenak dei dezala mesedez 600 71 92 51ra.  
 ■ Sakelako telefono bat agertu zen Orioko kultur etxean duela hilabete. Ja-beak bertan jaso dezake.

**Lan eskaintzak**

■ LH eta DBHko lehen zikloko ikasleei klase praktikularrak emateko prest dago batxilergo ikaslea. Interesatuak deitu 600 39 02 38ra (Goiuri). Tf: 608 16 49 71 (Amaia)  
 ■ Ingeniari teknikoak haur

eta gaztetxoentzat klase partikularrak eskaintzen ditu. Tf: 608 16 49 71 (Amaia).  
 ■ Pertsona euskalduna eta arduratsua behar da Debagoieneko enpresa batean kudeatzaile aritzeko. Ordutegi malgua; etxetik egin daiteke planifikazio lana; kilometrajea ordaintzen da. CV-a eureka@gmail.com-era bidali.  
 ■ Orion bizi den emakume marokoarrak lan egin nahiko luke etxeak edo lokalak garbitzen, edade-tuak zaintzen edo jatetxe edo taberna bateko sukaldetan laguntzaile moduan. Garbiketa lanetan eskarmentua badu. Tf: 667 91 53 98.

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
29	08:27 eta 21:05	02:22 eta 14:45	
30	09:19 eta 22:11	03:13 eta 15:42	
31	11:02 eta 23:44	04:23 eta 17:34	
01	11:46 eta ____	05:05 eta 18:17	
02	00:25 eta 12:53	06:45 eta 19:13	
03	01:39 eta 14:01	07:55 eta 20:15	
04	02:34 eta 14:53	08:46 eta 21:05	
05	03:19 eta 15:38	09:30 eta 21:48	
06	03:59 eta 16:18	10:09 eta 22:27	
07	04:37 eta 16:57	10:47 eta 23:05	
08	05:13 eta 17:34	11:23 eta 23:42	
09	05:48 eta 18:11	11:58 eta ____	
10	06:22 eta 18:48	00:18 eta 12:34	
11	06:57 eta 19:27	00:54 eta 13:10	
12	07:33 eta 20:11	01:33 eta 13:49	

» ZAINTZAKO BOTIKAK

URRIA  
 ■ 29an, Iriarte.  
 ■ 30ean eta 31n, Larrañaga.

AZAROA  
 ■ 1ean, Mutiozabal.  
 ■ 2an, Etxeberria.  
 ■ 3an, Zulaika.  
 ■ 4an, Iriarte.  
 ■ 5ean, Larrañaga.  
 ■ 6an eta 7an, Azaldegi.  
 ■ 8an, Larrañaga.  
 ■ 9an, Zulaika.  
 ■ 10ean, Iriarte.  
 ■ 11n, Azaldegi.  
 ■ 12an, Mutiozabal.

**Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz  
**Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz  
**Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz  
**Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz  
**Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio  
**G. Artifiano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz  
**Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz  
**Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:11</b>	<b>6:41</b>	<b>7:11</b>	<b>7:41</b>	<b>8:11</b>	<b>8:41</b>	<b>9:11</b>	<b>10:11</b>	<b>11:11</b>	<b>12:11</b>	<b>12:41</b>	<b>13:11</b>	<b>13:41</b>	<b>14:11</b>	<b>14:41</b>	<b>15:11</b>	<b>15:41</b>	<b>16:11</b>	<b>16:41</b>	<b>17:11</b>	<b>17:41</b>	<b>18:11</b>	<b>18:41</b>	<b>19:11</b>	<b>19:41</b>	<b>20:11</b>	<b>21:11</b>	<b>22:11</b>
Zarautz	6:19	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:09	21:09	22:09	22:38
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:15</b>	<b>6:45</b>	<b>7:15</b>	<b>7:45</b>	<b>8:15</b>	<b>8:45</b>	<b>9:15</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>16:45</b>	<b>17:15</b>	<b>17:45</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>21:15</b>	<b>22:15</b>	<b>22:45</b>
Donostia	6:39	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20	

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

**LANEGUNETAN**

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
<b>Orio</b>	<b>7:25</b>	<b>8:15</b>	<b>8:45</b>	<b>9:15</b>	<b>9:45</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>17:15</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>20:50</b>	<b>21:35</b>	<b>22:50</b>
Zarautz	7:35	8:25	8:55	9:25	10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25	16:25	17:25	18:25	19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:05			

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45	10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:15			
<b>Orio</b>	<b>6:55</b>	<b>7:25</b>	<b>7:55</b>	<b>8:25</b>	<b>8:55</b>	<b>9:30</b>	<b>9:55</b>	<b>10:30</b>	<b>10:55</b>	<b>11:55</b>	<b>12:55</b>	<b>13:30</b>	<b>13:55</b>	<b>14:30</b>	<b>14:55</b>	<b>15:30</b>	<b>15:55</b>	<b>16:30</b>	<b>16:55</b>	<b>17:55</b>	<b>18:55</b>	<b>19:30</b>	<b>19:55</b>	<b>20:55</b>	<b>21:25</b>
Donostia	7:30	8:00	8:30	9:00	9:30	10:10	10:30	11:10	11:30	12:30	13:30	14:10	14:30	15:10	15:30	16:10	16:30	17:10	17:30	18:30	19:30	20:15	20:30	21:30	22:00

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

**ASTEBURUETAN**

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	8:00	9:00	10:00	11:00	12:00	13:00	14:00	15:00	16:00	17:00	18:00	19:00	20:00	21:00	22:00	22:30
<b>Orio</b>	<b>8:35</b>	<b>9:35</b>	<b>10:35</b>	<b>11:35</b>	<b>12:35</b>	<b>13:35</b>	<b>14:35</b>	<b>15:35</b>	<b>16:35</b>	<b>17:35</b>	<b>18:35</b>	<b>19:35</b>	<b>20:35</b>	<b>21:35</b>	<b>22:35</b>	<b>23:05</b>
Zarautz	8:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45	22:45	23:15

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:45	8:45	9:45	10:45	11:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45
<b>Orio</b>	<b>6:55</b>	<b>7:55</b>	<b>8:55</b>	<b>9:55</b>	<b>10:55</b>	<b>11:55</b>	<b>12:55</b>	<b>13:55</b>	<b>14:55</b>	<b>15:55</b>	<b>16:55</b>	<b>17:55</b>	<b>18:55</b>	<b>19:55</b>	<b>20:55</b>	<b>21:55</b>
Donostia	7:30	8:40	9:40	10:40	11:40	12:40	13:40	14:40	15:40	16:40	17:40	18:40	19:40	20:40	21:40	22:40

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: [www.landabus.com](http://www.landabus.com), Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira

## » AGENDA



# Bertso desafioa Etxeluzen

Orioko eta Algortako bertsolariek, doinu eta errimak lagun hartuta, ideiak neurtuko dituzte bertso desafioan. Hitzordua gaur, urriak 29, 22:30ean Etxeluze gaztetxean izango da. Algortako ordezkariak Jone Uria, Arrate Illaro eta Beñat Vidal izango dira; Oriokoak, berriz, Iñaki Gurrutxaga, Ibai Esoain eta Xabier Sukia. Guztiek Jon Agirresarobe *Torrotxo*-ren esanetara jardun beharko dute bertsoan.

### Ordu aldaketa

■ Urriaren 31n, ordu aldaketa. 02:00etan 03:00etara aurrerati beha da ordulariak.

## Orio

### Hitzaldia

■ Azaroaren 6an, Orioko Udalak antolatuta, erretzeari uzteko hitzaldia. Izena emateko: turismo bulegora -943 83 09 04- deitu edota idatzi -orioturismo@gmail.com-. Prezioa: 90 euro. 09:00-15:00, kultur etxean (gaztelaniaz).

### Irteera

■ Azaroaren 17an, Zaharren Babes Lekuak antolatuta, Arantzazura irteera. Izena ematea: azaroaren 4an, 16:00etatik 18:00etara. Prezioa: 35 euro. 09:00etan, autobus geltokian.

### Sanikolasak

■ Azaroan, San Nikolas festetako -abendua 4tik 8a arte- egitaraua antolatzeko bilerak. Txupinazoa, Danbolin musika eskolakoek emango dute, 25. urteurrena ospatzeko. 19:00etan, kultur etxean.

### Ikastaroak

■ Ekaina arte, sendatze holistikoari buruzko ikastaroa. Prezioa: saioko 15 euro. 19:00etatik 21:00etara, asteartero, Mandalararen lokalean.

■ Ekaina arte, haurrentzako eta helduentzako margo ikastaroa. Irakaslea: Marijose Iparragirre. 16:45etik 18:00etara, haurrak; 18:00etatik 19:15era, helduak; biak Ibaiondo kaleko lokalean.

■ Eskulan ikastaroak Ostargirekin: jantzizigntza, patchwork, errematea, margoa, gantxilloa eta bolilloak. Egunero, astele-

henetik ostiralera, 09:30etik 11:30era, 15:00etatik 17:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, kultur etxean.

### Kirola

■ Saskibaloian, urriaren 29an, 3. mailako Gipuzkoako kategorian: Zarautz Zast-Alustiza Autobusak/Orio; 20:00etan, Antoniano kiroldegian. Urriaren 30ean, kadete mutilen kategorian: Antigua/Luberri-Orioko Ikastola ZKE; 09:00etan, Donostian. ■ Futboleko, urriaren 30ean eta 31n, preferente mailan: Urnieta-Orio; jubenilen lehenengo kategorian: Vasconia B-Orio; kadeteen lehenengo kategorian: Orio-Ondarroako Aurrera; alebinen kategorian: Martutene-Orio. Emakumezkoen jubenil kategorian: Arizmendi-Orio.

### Ipuin kontalaria

■ Azaroaren 16an, Judith Huego ipuin kontalariaren saioa 5 eta 8 urte arteko umeentzat. 18:00etan Kultur Etxean.

### Bestelakoak

■ Urriaren 29an, euskal presoak Euskal Herriratzearen aldeko elkarretaratze isila. 20:00etan, herriko plazan.

## Aia

### Podologia

■ Azaroaren 13an. Ordua hartzeko udaletxean eman behar da izena. Tf: 943 13 11 44

### Silo-bolen bilketa


■ Azaroaren 9an. Zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzeko Urkomera deitu. Telefono zenbakia: 943 81 65 00. Bestela, Igorrekin, zerbitzuaren arduradunarekin, hitz egin: 660 04 97 51.

### ATZEKO AZALA

Aia-Orioko tren geltokia  
XX. mende hasieran

### ITURRIA

Euskomedia  
Fundazioko artxiboa



TAYA-ORIO